

**Telesforo Monzon**

**LANGOSTA BATEN  
INGURUAN**

Fitxategi hau “liburu-e” bildumako alea da,  
liburu elektronikoen irakurgailurako prestatua.

Liburu gehiago eskuratzeko:

<http://armiarma.com/liburu-e>

Iturria:

<http://www.armiarma.com/monzon/arti01.htm>

Egileari buruzko informazioa:

<http://zubitegia.armiarma.com/?i=306>

# MENDE BERRIKO GIZONA

(Hitzaurrea)

**Koldo Izagirre**

*Telesforo Monzonek artikulu batean kontatzen duen anekdotaren protagonista izan nintekeela uste izan dut beti.*

*-Hau zen gure Lehendakaria!*

*Jose Antonio Agirre neukan begipean, ikusten nuen lehen hildakoa. Kristalari eman nion mun, osabak agindu bezala. Goseak nengoen baina lotsa nintzen, lehen bait lehen irten nahi nuen jende guztia begiak malkotan frantsesez mintzo zen etxe itogarri hartarik, goiko gelan Leizaolak Monzoni esaldi historiko bat botzen ziola jakin gabetanik:*

*-Orain Euzkadiko lehendakari neu naiz!*

Ez dakit Monzonek min hartu zuen lehendakari ez izanaz. Handik urteetara, Euzko Gaztedikoak ez ziren gazteekin lerrotu zelarik, bere PNVrekiko urruntzea min horrek eragina zela ere esan zuten. Leizaolak berak, lagun izanaren poemak zenbateraino laudatu

zituen ahantzirik, zoroa eta halakoak egotzi zizkion ez oso estilo ederrean egia esateko. Mitxelenak -bertsolariak ez, besteak- min emateko zeukan ahalmena erakutsi zuen artikulu deitoragarri antologikoan, lehendik «lirismo ederraren jabea» bataiatu zuenaren poemagintza eta politikabidea, lapiko berean egosirik, gaitzetsiz eta mesprezatur. Interpretazio guztiak dira libre eta egiantzeko, baldin eta pertsonaren nondik norakoa ezagutzen ez baldin bada, edo ezagutzen ez duenari mintzo baldin bazaizkio.

Monzonek aspaldiskotik zekarren gazteenganako makurdura, edo zehazkiago, egonkeria politikoarekiko hastioa, saiakera literarioak utzarazita Leizaola Lehendakaritzara ekar zezaten baino ongi lehenagoztik. Iparraldea erbeste ez zuen naziolalista zaharretan bakanetakoa zen Monzon, eta horrek, goiz edo berant, urrundu egin behar zuen frantsesez ikasteko ere gauza ez ziren jelkide zaharkitu, gure Iparraldean errotu gabe Francoren baimenaren zain bizi zirenetarik, eta hemendik hara ihesi zihoazen belaunaldi berriekin hitzegitera, biltzera, galdetzera eraman zuen. Mende Berri du izena Jose Antonio Agirreren gorpua hartu zuen etxeak, eta bertan izan zuen egoitza, handik labur, Lagun Artea errefuxiatuen aldeko

komiteak. Bere etxearen ezezik bere etxearen izenaren jabe zela nonbait, mende berri bat somatzen zuen Monzonek, bai, Euskal Herrirako. Barne-ikaratan zegoela dakigu orain, nazionalismo zaharraren ezintasunaz. Durduzameduak pairatu behar noski Monzon bezalako aristokrata desklasatu batek: jatorriz zegoen monarkikotasuna arbuiatuz abertzaletasunean murgildu zen, eta Jaun Goikoa eta Lege Zaharraren jeltasuna Xanti Meabek iragartzen zuen Jan Nahikoa eta Lo Zorroarena bilakatua ikusten zuelarik asko sufritu bide zuen ETA azaldu zitzaion arte ate joka eta sukar emaille. Gero, Herri Batasunako partaidea zelaririk, berea izaten zen beti Eusko Gudariak abesterakotan estutzen ez zen ukabil bakarra. Desklasatua zen, baina ez transfuga. Horregatik hartzen zuen min, eta min ematen zionari isiltasunaz erantzuten, ika-mika pertsonaletarik urrun. Iragana ukatu gabe zen abiatua etorkizunerat, ez zuen zer ezkutaturik.

Lizardiri bezala gertatu izan zaio Monzoni ere neurri batean, poetaren ospeak ezkutuan utzi izan du prosagilearen handia. Biak baitira handi, nire ustez, egundaino egiteke daukagun euskal prosaren historian. Prosan, diot, hitz lauz edo berba laxoan, nagikerian bezala, hilezkortasun asmorik gabe, hurbileko helbu-

ruan, hainbat euskal idazlek utzi dizkiguten maisularen genero labur, zail, zehatzezin eta definigaitz horretan. Uste izan dugu euskal kazetaritza Kirikiño zela eta ezer guti besterik, geureak bere sailak, azpi-generoak eta estiloak ere ez balitu bezala. Gero jakin dugu Larreko bat bazela, Manezaundi bat bagenuela. Iparraldeko kazetaritzaren emaitzak oraino ozta eza gutzen ditugu, pentsatuz eta Hiriart-Urruty batek betetzen ahal duela mende t'erdi... Jean Etxepare etortzen zaigu burura, eta ahazterat uzten ditugu Zerbitzari, Salaberry, Larzabal, Etcheberry, Monzon bera, euskaraz idatzi diren irakurgairik ederrenen egileak, diodan batere espanturik gabe.

*-Noraino joan zarete merendatzera orduotan ailegatzeko?*

*-Tolosaraino, trenez!*

*Gezurra zen trenez joan ginelakoa. Banekien Tolosan ez zekitela frantsesez. Erabaki nuen hobe zela etxeok ez jakitea Agirre euskaldunen lehendakaria ikusia nintzela, hila baina.*

Lehorreko eta ola-mendi arteko Bergara zaharrean haziak liluran hartzen du Donibane Lohitzune

bezalako itsasbazterreko herri polit, arin eta kosmopolita. Biak dira erreferentzia puntu garrantzitsuak Monzonen artikulugintzan, eta bietako oroitzapen, gertakari eta istorioak erabiliko ditu aitzaki, politikaz jarduteko bezala bizitzaz dibagatzeko ere. Idatzia utzi digu Lohitzunen bizirik Bergara zuela ments, eta Bergaran zegoenetan berriz Lohitzune zuela behar. Izan ote dezake saudaderik batek, bere herrian bertan? Hain urrun ote daude bata bestearen? Hain bestelako ote gara ipar eta hegoaldetarrak? Bai, noski, Euskal Herriak askatasunean bat egiten ez duen artean. Nire iduriko hauxe zen Monzonen bihotzmin sakona, zatiketa horizontal hau beste zatiketa larriago baten ondorio ikusten zuela. Espainiako transizio aroan Monzonek hainbeste ahalegin eskaini zion euskal frontearen ezina aurrikusten zuela esan genezake, berrogei urte lehenago, poetek duten hondamendien igartzeko botere misteriotsu eta mingarriarekin. Sentimenduetara zeukan hausnartua euskaldunon zatiketa bertikala, eta honetan ikusten zuen berak gure lurralde naturala ezin osatuaren zergati nagusia. Tafallak eta Ondarroak arrazoia eman diote egun, lehen Bergarak eta Lohitzunek bezala.

Zatiketa hau batasuna egiten da ordea Monzonek sortzen duen euskara berrian. Mende erdialdiko pro-sagile hegoaldetarren euskara lehor, bizirik gabe eta aranakerietarik osoro urrunezinaren ondoan, Monzonen harrigarri egungoa eta modernoa egiten zaigu. Bergararra izaki, ez zen erabat gipuzkoar, ez guztiz bizkaitar, bazuen bietarik. Donibandarra izaki, lapurtarra zen mintzoz; liburuzalea izaki, klasikoa zen irakurtzez. Hangoa bezala hemengoa izate honek halako euskara berezi, aberats eta pre-batua lez post-batua ere bataia genezakeen eredia sortarazi zion euskalkien ñabardurak maisuki profitatuz. Hogeita hamar urte geroago, batua finkaturik zegoela, hartara egokitzeak ez zion batere gatzik kendu bere-berea zuen hizkera literario benetan zoragarri hari.

Lapurdikoa lusagarrak eskuan eta Bergarako jaiak gogoan aurkeztu izan digu bere burua, naturarekiko atxikimendua eta alderdi bestazalea adostuz, bere kristautasunak -honetan ere herrikoi, zabal eta patxadatsu- ezin ezkuta zezakeen hedonismo zuhur eta moderno batean. Eta honetan ere Lizardiren ondora dakart Monzon, alderdi formalean hari zor dionaz gain -artikuluaren kentzea, aditz laguntzailea ekiditzea, elementuen eta aroen antropomorfatzea, naturareki-

ko ekarria- biek ere jakin izan zutelako, Kirikiñok eta Lauaxetak ez bezala adibidez, errealitate eta berehalakotasun politikoari gain hartzen, gizakortu egin zutelako beren jarduna luma laxo utzirik, barneak agintzen zienari bide emanez, noiz norberaren ahuldadeak azaltzeko, noiz aitorpen intimo bat egiteko, idazlearen deabrua nagusitzen zitzaiola bietan politikoaren aingeruari. Eta politikoek hain gorroto duten umoreak, ironia mehe eta inteligentea eginik, halako dimentsio hilezkor bat ematen die bion lerro aunitzi, alderdikeriak baino zabaltasunak gehiago, konsignen fedek baino biziaren beldurrak bortitzago eragiten zienez.

*PNVk alderditik kasatu zuenean, ohar bat idatzi zuen Ramon Saizarbitoriak biok sinatzen genuen Zeruko Argia zaharreko atal batean, 1977 urtea zen. Guti goiti beheiti, eta hitz egokiagoz, alderdiak kalitatezko pertsona asko izanen zituela noski Monzon bezalako gizon bati baja emateko, zioen oharrak. Astebeteren buruan Mende Berrin datatua zetorren gutun bat hartu genuen bion izenean:*

*«Zeruko Argian irakurtu ditudan hitzak, zuzen zuzen barrurantz sartu zaizkit. Lehengo ber-bera naiz. Eta gaurko gaztediari atzoko goraintziak ekartzeko*

*zerbait egin ahal badezaket, hemen naukazute. Arbola batek sustraiak behar ditu. Baina ostoa ferdeak ere bai. Bestela ez da arbolarik. Eta Euskal Herria, nereztat, ez da ez sustrai eta ez ostoa... arbola osoa baizik.»*

Euskal Herriaren arbola. Francoren aulkiak. Orga lokatzetan. Arrano beltza. Pitxar hautsia. Kanpai jolea... Fabulaz, parabolaz, alegiaz mintzatzea maite zuen Monzonek. Baliabide metaforikoak ematen zizkion herriari, adibide xingle eta zorrotzak, batasuna, lurraldetasuna, naziotasuna aldarrikatzeko argudio gisa. Honetan ere idazleak larderia handiagoa zuen politikoak baino, KAS alternatibaren puntuak buruz ikasgaraztea baino eraginkorrago zeritzon ipuintxo bat kontatzeari, hurbilekoak ezezik urrunagokoak ere bildu nahian. Bazuen gatza, hala ahoz nola idatziz, genero hori lantzeko. Hartuko zizun anekdota xume bat eta adibide orokor bat egingen zizun, hartuko zizun gertakari arrunt bat eta ondorio unibertsalak aterako zizkizun. Honen adibide egokia duzue bilduma honi titulua ematen dion artikulua bera. Manipuladore bat omen zela entzun izan diet haren etsai eta aurkari politiko zenbaiti, mesprezuz. Zer besterik da ordea, literatoa?

Alegiarako jaidura hau, egia da, egunerokotasunari ihes egitea izan liteke, edo errealitate bihurri eta anabastu bat aztertzeko adina tresna teorikoren jabe ez izanaren ondorioa, edo errealitateari buruz definitu nahi ezarena. Ez zen Telesforo Monzon politikan sartu berriko idazle bat. Ehundaka mitinetan eta Errepublikako legebiltzarrean trebatua zen buruz buruka Calvo Sotelo bezalako arrainekin idazten hasi zenerako, ez zen mutu geldituko argudio dialektikorik ezaz. Eta bestelako politikaz, ezkutuan eta alderdiaren aginduz pertsonalki egin beharrekoetan ere -Franco sendo eta luzerako zegoela Don Juan de Borbon-ekin mintzatzeari, esaterako- bazuen esperientziarik. Marxista ez denak ere errealitatea sakon xamar ezagun dezakeela onartzen baldin dugu behintzat, Monzonek bazuen zenbait kilometroren jirako berri. Eta ez zizkizun galdera gordinenak ere erantzuteke uzten.

Idazle egina eta aitortua zen, hala antzerkian nola poesian. Emanak zeuzkan barne bulkoak eskatzen zizkion ixuriak. Ez zen beraz literato frustratu bat parabolak idazten zituen politikari hau. Genero honetarako zeukan zaletasunak, nik uste, haren intelektualkeria ezean du oinarri. Jakinduria kultura bilakatu ahal izan dutenen dohain garesti horrekin beti mesprezatu izan

zuen pedanteria, eta hainbatetan adierazten digu, hitzokin ez bada ere, ideiak ez direla deus haragirik gabe. Horregatik egiten du antzerkia eta ez saio filosofiko edo historikoak, pertsonaiak ekartzeko geure begietara. Horrek, prosan, tesiak parabolen bidez aurkeztea dakar, mini-esketxak balira bezala. Ezaguna da poesiatik kantagintzara egin zuela bide. Eta ez zen genero hauetara etorria efikazia hutsaren bila, Monzoni berez sortzen zitzaion inguruarekiko eta pertsonetikiko atxikimendua. Hala utzi dizkigu, zirriborro guztiz ederretan, gure herriko pertsonaia xehe maitagarri horiek: Beñat Elizanburu, Bordazuriko amatxi, Azkarate koronela, Bergarako Kaximira... Gure historia apalaren protagonista ilunak, bihar oroitzapen literario jatorrak izanen direnak, idatzi zituen literatoaren estiloa bezain biziak eta gustagarriak.

Adeitsua, arraia, arina dugu Monzonen artikulugintza, irakurle apal eta eskolatu gabeei mintzo balitz bezala. Sekulan liburu bat irakurri gabea dela dirudi: esperientzia pertsonaletarik, berak bizitako gertakarietarik ateratzen ditu beti ondorioak, ez dizkigu proposatzen aurrez ikasitako definizioen hondakin. Naturatik eta gizartetik hartzen du jakinduria Monzon pro-sagileak. Gizakiaren miseriak baino, nahiago du giza-

legea eta elkartasuna adierazten dituzten adibideak proposatu. Ez ditu buru-haustek sobera maite, irakaspenak zeharbidez eta jostaketan ematen dizkigu. Azken finean, Monzon optimista handi bat genuen, eta baikortasun hori bere herritarrei txertatzen saiatu zen.

Arina zuen prosa, bai, baina ez sakontasunik gabea. Haurtzaroko oroitzapen batek irakaspen zorrotza ematen dio gerlan dena ikasia behar zukeen gobernariari. Anekdotak barregarri batek hausnarketa mingarriak eragiten dizkio jaun errespetagarriari. Neska baten irtenaldiak gogoetan murgiltzen du, hedonista. Herri xehea miresten duten aristokraten artekoa genuen Telesforo Monzon, burgesiaren gainetik jauzi eginik -eta honek egunero pairatzen duen klase borroka jasan behar izan gabe- nekazariekin eta arrantzaleekin, kontrabandistekin eta morroiekin liluratsen zaigu. Eta hori, aristokrata populista edo herri-zalearen irudia, oso ezaguna baldin bada munduan eta historian, ez hainbeste Euskal Herrian. Hain gutxi euskaraz.

*Erreterian gelditu ginen semaforoan, neu gidari, Monzon neramala Donibane Lohitzunera, Bilbon bilera barregarri bat izan ondoren. Ez nengil haren txofer,*

*baina ardura hau zutenek beste zeregin batzuk zeuzkaten eta ekialdera nentorrenez ekarri egin nuen. Gaua zen, auto guti zebilen eta gure norabidearen eskuineko karrilean geldituak geunden, espaloiairen ondoan.*

*-Klandestino txarra zara zu.*

*Ni ziur nengoen ez niola inoiz inori esan Agirre lehendakaria ikusi nuela hilik, baina ez nekien zer zekien nitaz Monzon jaunak. Baietz erantzutea erabaki nuen beraz, klandestino txarra nintzela, Gobernazio Ministro izandako batek ez du zertan ez jakin sasiko lanetan. Eta txoferretan ni baino jantziago egon behar zuen noski.*

*-Orain gure ezkerretik auto bat heldu eta metrailatuta ihes egin dezake lasai... Ezkerrekoan komeni da gelditzea beti semaforoetan.*

*Neure artean egin nuen horrelakoak ez zituela gerlan ikasiak, militanteren bati edo militante ohiren bati entzunak baizik. Batzuetan pentsatu gabe etortzen ohi dira erantzunak, eta erraz bota nion:*

*-Ez, orain ezkerretik etorriko balira ni hilen nindukete, txoferraren gorputzak babestu behar zaitu beti...*

*Isilik gelditu zen segundu batzuk. Gero algara batean lehertu zen, esan behar ziela hori asko zekite-*

*la uste zuten batzuei, grazia egin zion, eta non entrenatua ote nintzen ez galdetzeko bezain bihozbera izan zen. Bilera zer iruditu zitzaidan galdetu zidanean egia esan nion, iruditzen zitzaidana alegia. Ados zegoen, eta ados geunden bilera hura barregarri egin zuten arrazoietan. Akatsak ulertzeko eta konprenitzeko zeukan ahalmenak erakutsi zidan, adinak hartara eramaten zuela uste banezakeen ere, ez zela politikari sinesgabe bat. Eta ordukoan eta beste batzuetan, Monzonek pertsonalki frogatu zidan paperetarik bane-kiena, ironia erabiltzen duen idazlea nekez izaten dela zinikoa.*

*Hogei urte lehenago gurasoen isilean osabak eka-  
rri ninduen etxera nekarren nik, klandestino txarrak,  
bertako nagusia. Eskua eman nion Jose Antonio Agi-  
rreri musu baino beroago, eta ateostean ezkutatu zen  
arte gelditu nintzen beha. Iragan mendeko giltza  
handi batekin zabaltzen zuen Mende Berriko zurezko  
ate gorraila.*

Nabarmenkeria eman dezake norbera sartzea aur-  
keztu behar duen pertsonaren bizian. Ez du Telesforo  
Monzonek nire aurkezpenaren beharrik. Haren lana,  
haren prosa eskatu didate hautatu eta aurkezteko.

Betebehar honen harira dator, eta ez beste ezertara, harekiko bakan batzuk kontatzea. Idazterakoan idazleak mendean hartzen bazuen politikoa, bizitzerakoan idazleari gizatasunak hartzen ziola gain adierazteko. Ez dut idazleak emanen ez lukeen maila haren gizalegearekin bete nahi, ez dut halamoduzko obra bat egilearen jatortasuna dela medio jaso nahi, haren prosa aski gora mintzo da halakorik behar izateko. Oso bestelakoa da adierazi nahi izan dudana, alegia, idazle uste eta idazle bete eta idazle on asko, hau da, artista ez guti, hain daudela hartuak beren lanaz eta talentuaz non ezagutzen dituzularik iduri bailuke jatortasuna eta xumetasuna bateraezinak direla obraren kalitatearekin. Ez zen horietarikoa Monzon, aitzitik. Bazekien entzuten, bazekien isiltzen, bazekien gazteekin liluratzen diplomatiko baten jendetasunaz eta bizitza beteak ematen duen zuhurtziaz. Luma ziztrinagoekin egiten dute kukurruku zenbaitek.

Inoiz atera izan nion, noraezean bezala, literatura-ren gaia. Ez zeukan munta handian idatzi izan zuena. Monzon idazlearen artikuluek dauzkaten bertute berdinak zeuzkan Monzon gizonak: xalotasuna, dotorezia, ironia, detaile xumeekiko ardura. Ezagutu aurretik irakurria nintzen bere lan guztiak. Ederretsi nituenak ez

zitzaizkidan txarragoak iruditu egilea ezagutu ondoren.

# DONIBANE LOHITZUNEKO ELIZA

Donibane Lohitzuneko eliza barnean egiten diren bezalako pestak, ez dituzue katedral gehienetan ikusiko. Siniste gabekoa izanik ere, gauza eder eta goitarrak maite badituk, etorri behar huke noizean behin, Donibanen egiten diren elizkizunetara.

Maiz erraiten diet ene lagunei: Donibanetik inoiz alde egin behar badugu ere, hemengo eliza ahazten ez dugu lan goxoa izango.

Donibaneko eliza, bai, gorputzez eder. Baina batez ere, haren gogoia, haren arnasa, haren barne-giroa dut eder. Soinez, gorputzez, hau bezain ederrak ez ote gure Oñati edo Lekeitioko elizak? Aitortu beharra dugu halere: gure beste aldeko eliza ederrenetan, ez otoi eta kanta egiten hemen herriak Jainkoari kanta eta otoi egiten dion bezala. Beste era bat dute hemen.

Donibaneko eliza aitatzean, Pierre Dop zenaren izena ezin ixil. Harek bai hemengo eliza ongi ezagutzen. Ezagutu eta maite. Dop-ek idatzitako «L'Eglise de Saint-Jean-de-Luz» liburuan atzeman zenitzake, orain artean Donibaneko elizaz eman izan diren berri

zehatz eta egiazkoenak. Baina eskola ematera ez gatoz. Badira paper zahar eta harri zaharretan gu baino ikasiagoak; batzuek jakin, bertzeek senti... norzuk bietatik egiatik hurbilago?

-Pardon Monsieur, ou pardon Madame -hemen pardon eta Logroño aldean «c...», berdintsu erabiltzen baitira-. Connaissez-vous l'église de Saint-Jean-de-Luz?

-Hou-la-la -erantzungo dizu-. Mais c'est là que le Roi Louis XIV a épousé l'infante Marie Thérèse d'Espagne!

Eta udan, Donibanera nonahitik etortzen diren kanpotarrak, goizetik itsasoan ipurdia bustitzen ibili ondoren, arratsaldean *kodaka* zintzilik eta izterrak agerian, eliza barnera ikustaldi bat egitera sartzen direla, huraxe etortzen omen zaie arlote haiei burura: le mariage de Louis XIV!

Ez da harritzekoa. Donibane Lohitzunek ez ditu saltzeko, errege haren eztei-oroitzak. Hemengo bi jauziregi ederren eta zaharrenei ere -Lohobiage ta Arander etxeak- «La maison Louis XIV» bati, «La maison de l'Infante» besteari esaten diete. Erregeak batean, Inpantak bestean, pasa baitzuten eztei aurreko gaua. Ta ordurako, halere, elkarrekin ezkonduak zeuden.

Egun batzuk aurretik. Frantziako errege gaztearen ordezkoko don Luis de Haro zela. Hondarribiko elizan ezkondu zituen, mandatuz, garai hartan Iruñeko apezpiku zenak.

Bihotzak eskatutako ezkontza izan ote hura? Guk ez uste. Frantziako erregeak, Espainiako Inpanta emaztetzat eskatu zuenean, ez zuen ezagutzen, ezta santuetan ikusia ere. Haren edertasunari baino, zorrotz eta urduriago begiratzen zion egun haietan Luis erregeak, Bidasoa erdiko uhartean -kontrabandorako ere toki aparta- Mazarin eta don Luis de Harok esku artean zerabilten Frantzia ta Espainia arteko bake-agiriari.

Eta Inpanta gaixoarengatik zer esan? Gramoni dukeak, haren esku-eske Madrilera joanda, sei hitz hauek atera ahal izan zizkion neska gaixoari: «Cómo está la Reina mi tía?» Ta hurrengo egunean berritsuago zegoela nonbait, beste hamabi hitz hauek: «Decid a mi tía que yo estaré muy rendida a su voluntad». Askoz geroago esanarazi zioten, azkenean!, su-dario-lako maitasun-agiri txinpartagarri hau: «Erreginarentzat esandakoak, erregearentzat ere bitez».

Baina honek ez gintuzke gu harritu behar. Donibane-ko elizan gaur ere ezkontzen diren denak, ez dira

bihotza sutan aldarera igoko. Baserritarrak batez ere!  
Gure baserritarrak, egiazko erregeak izanik, erregea-  
ren antzera ezkondu behar izaten baitira maiz: «Por  
razones de estado». Euskeraz: «Komentziari begira,  
itxurari begira». Ta zer ba? Ez al dira, gero, beste zen-  
bait baino zorion eta bake handiagoan bizi? «Zezen-  
suzko» haren antzeko maitasun zalapartalaria baino,  
egokiago omen zaigu guri erreka-oren gisako maitasun  
ixil eta iraunkorra.

-Comment se fait-il, Monsieur le Chanoine -errai-  
ten zion behin kanpoko andere batek Narbaitz gure  
lagun burutsuari-, que vos basques aient la mauvaise  
habitude de rester assis tout au long des galeries,  
avec leurs bras bien appuyés sur la ballustrade?

-Oh Madame! -gure lagunak erantzun- la foi des  
Basques est une foi reposée.

Et l'amour aussi... esango genuke guk.

Alde batetik, Elizak eliza barnerako agindua duen  
lege edo liturgia: mundu guziko siniste batekoentzat  
bat. Bestetik berriz, Herri bakoitzak -hemen Euskale-  
rriak- bere izate bereziz elizarat ekar litzakeen bere  
ohitura, bere hizkera ta izaera osoa.

Horra ba: indar bi hauen batasunez sortua da aspalditik, Donibane Lohitzuneko eliza barnearen edertasuna.

Ez da egun bateko lana izan. Gaur, ordea, ezin esan noiz bihotz-ikara eta barne-pilpil handiangoetan izaten garen: Herri osoari -Jauna hartzera doala- latineraz «Magnificat» edo euskaraz «Oi mirakulu» kantari aditzen diogula.

Donibaneko elizan, Herri osoak -guziok batean eta batera- egiten otoi eta kanta. Ez teatro eta beste zenbait elizatan bezala, batzuek ari eta besteek ikus, batzuek kanta eta bertzeek entzun, batzuek otoi eta gehienak... egon. Ez; Jainkoa bedi, elizetan, entzule ta ikusle bakarra. Ta Herri osoak, bihotz batez, maitasun, siniste ta itxaropen batez, Hari otoi, Hari goramen, Hari kanta!

Egia esan, hemen ohituta, beldur naiz, gero gure beste alde hartan egiten ziren -eta egiten diren- elizkizunetara joateko. «Kirie» gora ta «Kirie» behera, «Gloria» gora ta «Gloria» behera, abeslari mordo batek -gorri-gorri eginda kantari guziak- jai handietan, korutik ematen zituzten opera antzeko meza nagusi haiek.

Esan eta irakurtzen zirenak ere!: «Amantísimo, dulcísimo, sapientísimo corazón...» eta antzeko atsozaharkeriak!

Un tantito cursilísimos señores predicadores... esango nieke nik, hango banaka batzuei!

Askotan, Ebanjelariak dakarzkiten Jesusen hitzak irakurtzeko ere, behar den astirik ez: Monseñor Francisco Francoren aginduak ere, eliztarrei jakinarazi behar izaten baitzaizkie...

Oraingoz behintzat, nahiago dut bai, Donibane Lohitzuneko bezpera nagusietan, ehunka eta ehunka gizoni -inguruko baserritar guziak han izaten diramunduko politikakeriak alde batera utzirik, bihotz eta ahots batez Jainkoari kantuz aditzea.

Zer eskainiko diot nik Jainkoari harengandik hartuak ditudan ondasun guzien ordaintzat?

Osasun-kaliza hartuko dut, eta Jaunaren izena aitatuiko dut.

Jainkoari emana diodan hitza, Herri osoaren aurrean beteko dut.

Euskal abestietan berriz, ez nuke jakingo zein aukeratu: Jauna hartzera tenoreko «Adora dezagun», Ostiral Sainduko «Oi Gurutzea!», Gabon gaueko «Oi eguberri gaua» edo «Atzar gaiten», Meza Nagusi

ondoko «Aingeru batek Mariari»... ez dakit, ez dakit. Baina eliztarren bihotzekin batera, elizako harriak ere ikaratzen direla ematen, euskal kanta horiek entzutean.

Donibane Lohitzuneko elizatik irtenda, egiten zidan behin gure Karlos Solano zenak: «Orain badakigu, gutxi gora-behera, Zerua zer ote».

Ta bukatu baino lehen... nire hobena, nire bekatua aitortu beharko dizuet. Hara: Donibaneko eliza barnean egiten diren elizkizunetan, Herri osoari abesten entzuki nagoela, Frantziako Errege ta Espainiako Inpantaren ezteiak -sinetsiko al didazue?- ez zaizkit, egia esan, askotan burura etortzen.

Izaten du gure barneak beste zertan ari.

Udatar turista prakamotz eta txilbor-agertzaile jaun-andereak, barkatuko al nauzue?

# DONIBANE LOHITZUNE ETA INGURUAK

Gizonak bizitzeari har liezaiokeen goxoa hartzeko, bai ote, munduan, Donibane Lohitzune bezalako bertze herririk? Ez dakit ba. Euliak eztian bezalaxe, gelditu izan dira anitz Donibanen: oinak hemen ipinita, gero ezin irten.

Izango dira hau baino leku egokiagoak, bai lanerako, bai «gizon handien» semeek behar izaten duten (?) adina eskola hartzeko, bai diru egiteko ere. Baina, bizitzeko? Bakean, erraz, leun, ia-ia konturatzeke bizitzeko? Honetarako ez munduan -ezta munduaren inguruetan- Donibane Lohitzune bezalako herri egokita... xarmantik!

Itsasertzean, mendi politak hurbil, (noranahi jota, ibil-leku zoragarriak) herri baitan behar eta nahi beste, Donibaneko seme-alabak atsegín eta leunak dituzu. Hemen

-bospasei neskazahar «intellectuelle» alde batera utzita- ez zaizu inor galdezka etorriko: «Que pensez-vous de l'avenir de la Russie?» edo «Et alors, cette bombe atomique?» Ez. Hemen bakoitzak bere bizitza,

edo herriko bizitza bizi du, buruhauste handi horiek -zer nahi duzu ba!- pittat alde batera utzita. Errusiako bizimodua, Donibandarrek alda al lezakete ba? Hobe dugu, beraz, txarto bizi direnengatik gaizki esaten ibiltzea baino, mundu honetan nola hobekixeago bizi litekeen erakusten saiatu. Ez al da lan hobea?

Negu -aspaldi honetan- eguzkitsiak ditugu, udaberri zerutar eta beti bezalako hego-udazken gorri berdingabeak. (Lagunak bezala maite ditut nik urte-sasoiak, eta haiekin lagun bezala ibiltzen naiz mintzo: Kaixo Udazken! Agur Negu! Zer dugu ba, zer dugu, aspaldiko Udaberri!)

Udaz, prakamotz hodeiak heltzen hasi orduko, hemen denda edo jatetxerik ez dugunok, goiz-goizetik mendirat edo norabait, urrun hiritik alde egitea hobe: turisten besape-izerdi horrek, pufff!, ez usain eder. Sudurrak itxi ta mendira. Baina, zer nahi duzu ba? Udaz, bi hilabetez, kanpotarrek utzitako urin eta koipez bizi baikara urte guzian gero, donibandarrok, lanean «sobera» estutu gabe... Alors! Voyons! Il faut être raisonnable, tout de même...!

Gure Donibane honetan, bakoitzak (Jainkoari behar beldur, ez jendarmeari) zernahi pentsa, egin eta irakur lezake; nolana jantzi; orotatik jan-edan...

Ba! -esango didazue- dirua izan ezkerro bai! Jakina: sosik gabe, ez da hemen ere jaterik. Baina joan zaitez, eguerdiz, Donibaneko langile baten etxerat, eta ikusiko diezu: elurra bezain mahai-zapi zuriaren gain, eltzekari bero begidun, haragi biguin odoltsu, arno gorri eder, eta... nolako ogi zuria!

Inguruko zenbait baserritan ere, markesarenean bezain dir-dir atzemanen dituzue hemen, argizariz igurtziak, etxe barne-beheak. Eta jan? Galde hemengo baserritar mutil gazteei, behar denean -erretore jauna datorrela-edo- nola antolatzen dituzten amak edo arrebak, «Le canard à l'orange», «Les couchées à la reine» eta nolanahiko pastixa gozoak. Parisen nonahi bezain ongi. Jantzi berriz? Ikustekoa da baserritarrak, igandez, zaldi-gurdi polit horietan, bezperetara nola jantzita etortzen diren. Lehen ez hala, noski «Gure denboran -esaten zidan hirurogei bat urteko emazteki kanpañatar batek- ahizpa bi etxean, eta bientzat soineko bat: ahizpa bat Elizan zela, bestea etxean behar. Orain berriz!»

Arrantzaleak, hemen ere, arloteenak: «Dagoenean bonbon, ez dagoenean egon». Ontzia hutsik dakartela, gerrikoa estutu behar. Sardinaz-edo bete-betean baldin badatoz, harrapagarri hustuko dira, gau hartan,

Donibaneko haragitegi ta goxotegiak. Zer nahi duzue, ba? «Jainkoak egin zuen Martin, bere prakekin». Arlo-teak bai baina...? Bai al da, gure Herrian, arrantzaleok bezain bihotz eta esku zabalekorik? Euren Kantauri itsasoa ere, zabala baita...!

Itsasaldetik etortzen zaizkio Donibaneri -arrain usain eta builarta haizearekin batera- egun ilun eta larrienak ere. Ekaitzetan, haserreak zuritutako itsaso harroan barrena gora ta behera, ontziak kairaino sartu ezinik, hartan ibiltzen direla, ai ama!, entzutekoak dira Zokoa, Ziburu ta Donibaneko emaztekien oihu ta negarrak!

*Arrainak, itsasoaren ume,  
guk, arrantzaleok, ostu...  
Ez da harritzeko, amak, haserre,  
noizbait itotzen bagaitu!*

(Bospasei egun hauetan, atunez bete-beteak datoz, itsasotik, ontziak. Halakorik ez omen orain artean ikusi. «Horrela bizi bagina beti...»)

Harritzekoa da: arrantzale ta baserritar bat ez dituzu inoiz, Donibane inguruetan behintzat, elkarrekin ikusiko. Baserritarrak ez dio itsasoari begiratuko

ere, ta itsas arrantzalerik ez dugu, oraino, mendian edo baserri inguru batean atzeman. Elkarri bizkarra emanda bizi dituzu Donibaneko itsas eta mendi-gizonak. Ez elkarren gorrotoz: bata bizi denik ere, bestea ez ohartzez. Honela gertatzen al da Mutriku, Lekeitio ta horietan ere? Soin eta gogoz, lehor-gizonak garenoi, ez itsasertzeko berri galde. Ez baitira anitz, Karlos Solano izanaren antzekoak: Erdiz arrantzale, erdiz baserritar, oso-osorik jaun!, geure Herri osoa zeraman harek bere baitan.

Leku baketsua, Donibane Lohitzune!

Elkarrenganako gorrotorik hemen? Alaiegi bizi dira alde honetan gehienok, eta heziegiak dira, gu han bezela -politika dela ez dela-elkarri begi ta tripak atera nahian beti bizi behar izateko.

-Usted pertenece a «Unión Republicana»?

-Yo sí señor, y a usted qué le importa?

-Pues para que vea, grandísimo sinvergüenza, si me importa o no me importa, ahora mismo le meto este caldero por la cabeza, paffff!!

»Conque de «Unión Republicana»! Sabiendo, además, que es un partido que a mí me revienta! Pues espérese a que nos hagamos con el mando: Usted al paredón, y su viuda a dormir a la calle. Entre otras

razones, porque mi señora y yo hemos decidido instalarnos en su piso, me oye?, que ya sabemos que es aseado y tiene baño con «bidet».

Edo:

-Estuvo usted en misa esta mañana?

-Pues mire, señor, resulta...

-Basta. Entendido. Desde mañana se busca usted trabajo en otra parte.

-Y mi mujer, y mis hijos?

-Ya los atenderemos cuando aprendan a vivir «en cristiano».

Eta jakina; besteen txanda datorrela, gero:

«Ya lo sabéis, compañeros! Desde ayer mandan los nuestros, así que desde mañana se deja el trabajo y se sale a la calle. Que no quede fábrica en pie, ni convento apagado... Ah! Burgués o fraile que encontréis, cazarlo y derechitos al pescuezo, rau!, como a las gallinas. A ver si el mundo se da cuenta de que vivimos en Democracia...»

Eta odola! Odola beti! Odola ikus, usain, ukitu. Ogirik ez baina... «Ta-ra-riii! Viva la muerte! Pregón: Y aquí puede pensar cada cual como le dé la gana... a condición de que todos piensen como yo. Arrrrrrriba el Caudillo!!»

-Mais c'est de la sauvagerie... Et vous êtes obligés à crier tous comme ça: Viva el Codiyo! chez vous?

-Nosotros sí Mesié, ¿Y ustedes en Francia?

-Hou-la-la! En France, au moins, on peut encore dire Merd à celui qu'on veut.

Soineko txukun eta aurpegi alaiez joaten dira hemen, Donibaneko neskabila ta mutilak eskolara. Haien poza! Hara lehengoan, nik ikusi ta entzun ondo-koa: goizean goiz, eskolara zekarren Balbino Barriolak bere alabatxo polita -masailetan bi sagar, mototxetan txori bi- ta eskola-ateraino heldu zirela, alabak aita agurtu, muxu emanaz. Hamar pauso ez genituen eginak: negarrez eta oihuka genuen haurra gure atzetik. Aitari lepotik eutsi ta barneko berri ezin hari eman. Zotinak ez uzten. Azkenik, malko garratzetan: «Ai-ta, ai-ta! Gaur es-ko-la-rik ez omen!!»

Gogoan dut, Bergaran mutikoak eskolara nola eramane behar izaten zituzten. Irakasleari beldur, eta eskolan aspertzeari beldurrago, arrastaka karriatzen zituzten, askotan, mutiko gizajo haiek eskola-ateraino. Haien oihera ta ostikoak! Infernuak ez zuen, ume errukigarri haientzat, herriko eskola baino iduri antzekoagorik. Piper egitea, berriz... Zerua! Baina, zeru-aldi laburrak izaten haiek: Geroko makilada eta astinaldiek

gehiegitxo berotzen -zerutik jaitsiak izateko- haurren bizkar eta ipurtaldeak.

Bai haurrak eta hilak ere, ez al dira hemen alaiago bizi?

Gurekin batera bizi dira hilak, Lapurdin. Elizari hurbil, pilotalekuaren albo, herriaren erdi-erdian. Leku polit, alai, eguzkitsuenak, hilek izaten dituzte. Hilerrietatik ageri baitira, hemen, inguru zabal eta mendi ederrenak. Han gure alde hartan, kanposantu-zokotan, hilek urtean behin izaten euren eguna: egun ilun, euritsu ta negartia. Jantzi beltz eta kandelargi-eguna. Hemen, berriz, egunero dituzu biziak hilen artean: elizarakoan, etxerako bidez, lanetik itzul, dantza aitzin eta ondoren... Haurrak ere, hilerriko bidezidorretan ibil jostatzen; eta igande arratsaldez, senar-emaztegai politik sei bat aldiz hilerri alderat ibilian joango. Ta hantxe, bata-bertze gurasoen hilobi ondoan eseriko; eta egonean egon, otoitzean ez bada mendiei edo elkarri begira iluntzeak hartuko. Horiek, ezkon-egunez, elizatik irtenda, etxeko hilak agurtuko dituzte lehenik. Oi hilak biziekin bat egite ederra! Oi eten gabeko lehenaren orain eta geroa! Gure Euskalerrri zahar eta gazte!

Non dira, aspalditik, Donibaneko hilak? Lohitzune-ko elizak ez baitu, orain, hilerria hurbil. Ostu zizkiguten, hemen ere, hilak biziei. Ez baina, nolana.

Baionako Apezpikuak 1793garrenean Donibaneko hilerria eliza ondotik hiritik kanporat eraman nahi izan zuela, jaiki ziren, eta nola!, herri baketsu ta alai hone-tako biziak euren hilen alde; ta herriaren haserreari beldur, lehengo tokian -eliza ondoan- utzi behar izan zituzten hilak berriz. Geroxeago ere -Frantziako Matxi-nada Nagusi urteetan- eraman nahi izan zituzten, atzera, hilak biziengandik urrun. Alferrik oraingoan ere: berriz biziak altxa ta hilek, atzera, irabazi. (Mais Messieurs de la Révolution Française! Pourquoi pas un peu de «Fraternité» aussi entre les vivants et les morts?)

1825garrenean, azkenik!, lapurtu zituzten doni-bandar hilak eta hiritik kanpo, «Haize-Errota» kanpo-santurat eraman. Marmol zurizko kanposantua, hura ere! Hango hotza! Bakar-bakarrik, hantxe dagoz geroztik hilak, herriko plaza ta eliza itzalpetik urrun, biziengandik zokoratuta.

Gure bertze alde hartan bezalaxe...

*El inspector de sanidad.*— Señor Otea, no atente usted contra los sagrados derechos de la Higiene Pública.

*El señor Otea.*— ¡La higiene pública! También las almas pueden enfermar de peste, señor inspector. Peste de tedio, de melancolía, de soledad; vértigo del que mira al futuro sin apoyo en el pasado; vacío de Eternidad... Que nos dejen vivir alegres con nuestros muertos...

*L'inspecteur de la santé publique.*— Qu'est-ce qu'il veut faire de ses morts celui-là?

*Lagun batek.*— Hator. Horiekin alferrik ari haiz-eta.

*Ainhoako andre gazte bati entzuna.*— Nondik heldu zara, haurra, izerditan?

*Haurrak.*— Elizarakoan, ama, hilerrian ibiliak gira pinpilinpausak biltzen...

# EGUBERRI GERTAERA BAT

Gertatu zen bezalaxe erranen dut, esango dut. Ez diot gertaera honi, nik hemen ondorengorik aterako. Irakurri ondoren, bakoitzak nahi duena pentsatzea du. Hor konpon (Erdaraz: Vive la Liberté!).

Joan den irailaren, ez dakit bigarren edo hirugarren igandea zen. «Dantzarien Eguna» zela-ta, Lapurdi, Baxenabarre ta Zuberoatik lau-bortz ehun bat dantzari helduak ziren goiz hartan Baionarat. Aupa mutiak. Hango neskatxa polit, mutiko eder, irrintzi zorrotz, doinu alai, jantzi berezi, jauzi arin eta kolore biziak!! Bortzehun dantzari gazte haiek, Baionako karrika barne, eliza nagusi aldera doinu ta dantzan bazihoazela, herriko- seme ta kanpotar guziak erotuak zeuden -egonean egon- haiei begira.

Sartu ziren prestuki gure dantzariok eliza nagusi barnera. Baita haien atzetik, zoratuta, herria ere; ta katedraleko zoko ta bazter ilunenak -hango itobeharra!- bete zirelarik, hasi ziren meza-otoitz eta kantikak.

Ez dira bihotz-ikarak erosten. Lapurra ta heriotza bezalaxe, uste-ezean heltzen zaizkigu noizean behin-

ka barne-zartada eder horiek ere. Nagusitzen zaizkigu zenbait aldiz; eta haien mende -irri edo negar- gure burujabetasuna badakigu galtzen, ederraren indarrak eginak gaituela bere.

Halaxe geunden, goiz hartan eliza barnean, guziok. Saint Pierre apezpikuaren hitzaldiak, beraz, lastoari su eman besterik ez zion egin behar izan. Utzi ezkerro, hitz bat haiei egin ezkerro, hasiko ziren -eta nola!- bortzehun dantzari haiek doinu eta dantzan. Zergatik ez utzi? Zergatik ez zioten ba, Dabiden anaia gazte haiek Jainkoari Bere etxean dantzan egingen? Baxenabarre ta Oñatiko mutilek Pesta Berriz ohitura duten bezala. Agian... gorrotoz ustelduta dituzun zenbaiten ezpain-otoitz gezurtiak baino, maiteago lituzke Goiko Jaunak menditar dantzari eder, sanu, bihotzgarbi haien dantza ta jauziak!

Bihotzak pil-pilean genituen beraz, eguerdi hartan mahaira bildu orduko. Jaun Narbaitzenean genuen bazkari. (Inon ongi jatekotan, Lapurdi ta Baxenabarreko apaiztegietan omen!) Etxeko jaunarekin batera, beste zazpi mahaikide ginen: Terriar Baionako apezpiku, Saint Pierre «Gernika»-ren buruzagi, Sota'neko Manu, gure Doyanburu -haren egun hartako lanak!-

euskal mintzalari haundienetarikoa den Idieder, bertze Baionako jaun ezagun bat, eta zortziok.

Mahairakoan -Saint Pierrek euskaraz *Aita gurea* esana baitzuen- guziok exeri ta eltzekaria jaten ari ginela, hasi zen Baionako apezpikua hizketan.

-*Aita gurea...!* -zioen-. Ez dugu hori bezalako otoitz ederrik. Banaka-banaka, emeki-emeki esan behar genituzke Aita gurearen hitzak. Eta hitzok gero... gure eguneroko eginkizunetan behar bezala bete! Haurrak hemen Euskalerrian, hara guri gizonei bidea irakasten nola hasiak diren: biltzen dira, zenbait herritan, mutikoak iluntzez; eta, emeki-emeki, denek batera, Aita gurearen hitzak erraiten. Baina hara... *Barka eizkiguzu gure zorrak...* esan ondoren geldiarazten dute denek otoitza. Ta hango norbaitek bertze norbaitekin haserrea balu, joaten zaio barkamen eske. Bakeak eginik, euren tokietara itzul, eta Aita gureari jarraitzen: *guk gure zordunei barkatzen dizkiegun bezala*.

»Gizonak ere -zioen apezpikuak- beste hainbeste egi-ten hasiko bagina, atomikaren indarra baino handiagoa litzateke ludian, gure Aita gurearena.

Hitz hauek geunden guziok entzuten, Narbaitzen-gana neskame zaharra hurbildu ta, hari ixilean zerbait

esanda, mahaitik aterarazi zuela. Irten orduko berriz ere sartu, ta Manu eta bioi egin zigun dei kanporat. «Hara zer gertatzen den -esan zigun- Nafarroako dantzari talde bat Baionara heldu omen. Bazkaria Iruñetik ekarria dute baina, ogirik ez. Igandea izan eta, hemengo ogitegi guziak itxita atzeman dituzte. Zer egin?»

«Hori bada, aurkituko dugu guk ogia nonbaiten», esan genion. Eta beste mahaikideei deusik esan gabe, irten ginen.

Ogitegiz ogitegi luzaroan alferrik ibili ondoren, uste-ezean azkenik, okin lagun bat kalean atzeman eta harek zabaldu zigun, ixilean atzetik, bere denda. Bete genuen gure berebila ogiz eta, abiatu ginen Plaza Nagusirat, gure napartar dantzari ordurako ongi gosetuengana. Han zeuden guziok, nor etorriko ote zitzaien begira.

Neska-mutil gazte haien artean, Amagoia antzeko andere bat zegoen jarrita. Haren ileak zuri-gorriak ziren, begiak urdin, gorputza, berriz, haritza bezain luze ta sendoa. Errespetuko anderea! Bera bezain jaun galanta zuen atzean zutik: Harek ere ile gorrizka, begi urdin, sudur luze, gorputza pagoarena. A nolako gizon puska, hura ere! Txapela zuen buruan, dotore

jarria. Nongoak ziren esan beharrik ez zuten, anai-arreba bi haiek: A zelako euskal napartar bi! Izan ere... Baleztenatarrak ez ziren ba?

Menderik mende, euskal anaien arteko gerla zahar eta berriak, alferrikako odol galtze ta erahiltzak, zatar-keria, gorroto ta gaizkiegite guziak etorri zitzaizkidan, haiek ikusiz, gogora. Hamahiru urte hauetan ere... ongi gorrituak ditugu ba elkarren odolez gure mendiak!, *Frontera de Malhechores...* Ondo irabazia duk hire erdarazko izena! Bizirik hago, oraindik, euskal anaien artean!!

Zer egin? Jaitsi ginen autotik, napartarra hurbildu zitzaigula. Elkarri esku eman ere. Ta esan genion: «Ogirik gabe zinetela ta, hara hemen ogia».

«Ogi zuria! -erantzun ziguten haiek-. Ez gaituzue aspaldi horrela ohituak. Ongi etorriko ogia dakarkiguzue. Milesker, jaunak. Eta otoi! Edan ezazue zuek orain gure zahatotik arnoa.»

Ezin ukatu baina, ai ama, nire estualdiak! Zahatotik edatea ez baita denentzat lan erraxa. Zer pentsatu behar zuten mahaian utzi genituen jaun prestu haiek, inori hitzik esan gabe irten eta, ordubete buru, biok alkandora ta galtzak arnoz beterik sartzen ikusi ezkeror?

-Non ibili zarete? -galdetu ziguten lagunek harrituta, gu mahairat agertzean.

-Barkatu jaunak -erantzun genien-. Gauzak hala-  
xe etorri dira-ta... *Aita gurea* esaten ibili behar izan  
gara gu ere, kalean.

Apezpikuaren haur horiek baino lehenxeagotik  
hasita: ...*Eguneroko ogia eman zaiguzu, ta barka eiz-  
kiguzu gure zorrak...*

Eguberri baita, aurtengo Gabon-gauaz euskaldun  
guzien ezpaineak esan ahal dezatela bihotzarekin bate-  
ra:

*...guk gure zordunei barkatzen dizkiegun bezala!*

1949

# TA-PA, TA-PA, TA-PA, TXI-RU-LI-RU-LI

Baditut Ziburun lagun bi. Ez nolanhiko lagunak. Txistulariak dira, anai gazte biok. Txistulari ta zapatarri. Zapatak konpon eta txistua jo, txoriak bezain alaiak dira; erleak bezain langile. «Horiek...? Mutiko ixilak dituzu horiek» diote Ziburun. Eta jakina da: gure Herriak ez du, mutil batengatik esateko, «ixila» baino hitz gorenagorik asmatu.

Ziburu zaharrearan dute anai biok lantegia. Gela estu, ilun xamarra baina, zapataz betea beti. Han ibiltzen dira biok, buruz buru, begiak altxa gabe, goizetik gaueraino lanean. Kadera apaletan exerita, soinean amantal urdin, eskuan mailu... ta-pa ta-pa ta-pa ta-pa... eguneroko eginbeharrak bukatu, ta hitzemanak bete artean. Gauaz, etxera joanda, mailua utzi ta txistu hartu. Biok -buruz buru orduan ere- paperaren aurrean jarrita... txi-ru-li-ru-li... txi-ru-li-ru-li...

Kasu, gero! Ez uste Ziburuko zapatarri anai bi horien lantegi ttipi hartan, nolanhahi sartu, ibil eta mintzo daitekeenik. Ez horixe! Han ez, gero, harrokerietan

hasi. Behar baita, zaldunen etxeetan, zaldunen gisara jardun eta ari.

Ez dira gure lagun biok, sortzez, Ziburutarrak, Hondarribiko seme jatorrak baizik. Orain hamahiru urte dela, ihesi etorri behar izanak horiek ere. Guraso ta arreba gazte polit batekin igaro zuten muga. Euren Euskalerra alde hura, su ta odoletan, hilobi azpian utzirik. Ez dakit puska batzuk etxetik atera ahal izan ote zituzten. Eskuak hutsik, begiak apal, barneak garbi-zenbat eta zenbat holako!- Hondarribitik Zibururat jo zuten. Ez dagoz ba herri euskaldun biok, bata bertzearengandik urrun, eta halere... (Oi Bidasoa! Ez zekiat gure etsai edo gure laguna haizen...!)

Ziburun atzeman zuen, beraz, hondarribitar sendi horrek ere, aterpea. Sukalde ttipi baten inguru, bizpahiru lo-toki. Elur eta eguzkiz txukundua zirudien bizitzak. Bazuten, sukalde ondoko baratza ttipi hartan ere, zenbait porru ta lore. Zerua! Diruz estu, maitasunez aberats, handik ikusi zituzten hodei astun ilun haiek Euskalerra gainetik trumoi eta tximistaka igarotzen. Beltzenak urrundu zirela, irten ziren leihora poliki-poliki; erdireki zuten atea ere ta, ixil-ixilik, kalera irtetzen hasi. Aise egin zituzten lagunak. Laster etxea auzoko zapataz bete ere. Inon inolako pestak baziren,

txistulariak behar eta, deitzen zituzten. Haiek herriari lagun ta herriak semetzat hartu: laster biok bat egin ere. Ziburuko eliz kanpaiak hasiak baitzitzaizkien mintzaten. Eta piztu zen, hasi zen -hondarribitarren Ziburuko sukalde hura- arnasa hartzen. Egunez, mailuaren bihozkadak entzuten ziren... ta-pa... ta-pa... ta-pa... gauetz txistuarenak... txi-ru-li-ru-li txi-ru-li-ru-li... Gaur, beste askok bezala, ez dakite horiek Ziburu edo Hondarribikoak ote diren. Euskalerrriaren semeak direla jakitez, ez al dute aski?

Ameriketatik itzuli berriak ginela ezagutu nituen txistulari anai biok: «Gudarien Eginak» liburua atera nahiz nenbilela. Norberak musika-eskolarik izan ez eta, norbaiti jasoarazi behar nik -ez Gaiarrerren aho-tsaz, ene Jainko maitea!- kantatzen nituen abesti haiek. Halaxe jo nuen Ziburuko txistulariengana. Ez zaizkit aise, etxe hartan egindako egonaldiak ahantzi-ko. Nire liburuko poemak? Zer balio zuten haiek...! Beste hura bai poema, beste hura, sukalde hartakoa...! Poema goitar, herrikoi eta bizia. Herriaren, Herri xehearen, Herri apal eta ixilaren, Herri irakaslearen eguneroko poema.

Ikustekoa zen: sartzen nintzen, sukalde txukun hartan, eguerdi inguru. Udaberriz, baratzarako atea

zabalik, txoriak ibiltzen ziren kantari ondoko zuhaitzetan. Alboko gela batean, txistularien ama ohean eri, haren arnasa larriak entzuten genituela. «Ez ote dugu unatuko?», galdetzen nien semeei. Ta haiek espantu gabe erantzuten: «Bai zera! Egin beharrak eginak omen ditu ta, bizi izan den bezain alai dago gaur gure ama, hiltzeko ere». Haiek mailuak utzi, kaderatik altxa ta hasten genituen gure lanak: neu kantari (?!), anai gazteena txistuarekin, zaharrena berriz -Beethoven ber-berari aditzen balego bezalaxe- betaurrekoak ipinita, niri abesten entzunak harek paperean emaiten zituela. Arreba gazte polit hura, artean, han ibiltzen zitzaigun, legatza prijitu edo elur antzeko zapiaren gain mahaikoak antolatzen. Zenbait aldiz honela ari ginela -halako batean...- atea zabaldu ta arrantzale emaztekiren bat sukaldean ager, semearen zapata zahar urratuak eskutik zintzilik zekarzkiela. Harek «Prexatua naiz ba» erran ezkerro, uzten genituen gure lan guziak; jartzen ziren atzera anai biok euren kaderetan; hartzen zituzten mailuak; eta ikustekoa zen nola ixtant batean konpontzen zituzten, haur oker harek harri-joka urratutako zapatak. Bazen sukalde hartan, beti, sartu-irtena: batek bere oinetakoak utzi, besteak senarrarenak jaso, ezkontza baterako txistu-

larien eske, jaun erretorearen izenean elizarako «galdezka», dantza-pestaren bat gertutzen ari Donibane-koak eta, Ziburuko txistularien laguntza behar... etxe hartan ez zen halere, ez zalapartarik, ez oihurik, ez haserrerik aditzen. Hango sartu-irten, joan-etorri, jende-hartze, agur-egite, ta hitz guziek, Aita Donostia-ren *minuet* horietako baten neurri ta doinuz eraginak baitziruditen.

Sartu zen etxe hartan ere zorigaitza. Ziburuko hilerrian dagoz gaur lo, txistularien aita ta ama izanak ere. Urruña...! Ziburu...! Altsu...! Bidarte...! Lapurdiko hilerri gehienetan baditugu, dagoeneko, hamaika hezur maite ehortziak.

Zarata askorik gabe hila omen Ziburuko txistularien ama izana. Bake ta ixilaren ederra baino gorenagorik bai ote? Gure Herriko beste emaztekien maitasunak zituen harek; eta etxeko sua, jostorratza ta eliza-bidea. Baita bertze bi ere: lore ta txoriak. Horretan ez, beste gehienen antzeko. Egia esan, baratzako loreak baino maiteago baititugu gure herrian... porru ta patatak, esate baterako. Txoriak ere, zuhaitzetan baino... guk zartaginean nahiago. Harek ez ba: semeek, haurtzaroan, ama kexarazi nahiz, harengana joan eta «Ama -esaten omen zioten- txori-habia atze-

mana dugu atzo, arbola mutur batean, eskolatik irten-  
da, txorietara goaz gaur». Orduantxe haserretzen  
omen zitzaien ama.

Ta hara gertatu izana: emazteki hura azken arna-  
setan zegoelarik, sartu zitzaien leihotik txori bat; igaro  
zuen sukaldea hegazka ta, gela barnea atzemanik,  
eriaren ohe gainean kokatu. Handik hasi zen kantari.  
Txistularien amak azken arnasa emaitan, airatu zen  
txoria ta, ohe inguruan zeuden denak harrituta utzirik,  
atzera leihotik ihes egin...!

Ziburuko alaba polit bana hartua dute gaur, hon-  
darribitar umezurtz anai biok. Egun berean ezkondu  
ziren. Arrantzale zahar eta eskoletako haur, herri osoa  
joan zitzaien Ziburuko elizatik irtetzen ikusterat. Dan-  
tzarien erditik igaro ziren. Esan beharrik ez: apal  
bezain zaldun, minuetoaren antzera eraman zituzten  
egun hartakoak ere.

Ez dituzte geroztik ez mailuak ez txistuak bazte-  
rrean utzi. Herrikoen zapatak konpontzen, heldu ezi-  
nik ibiltzen dira orain ere anai biok. Pestarik ez duzue  
hemen inguruetan, Ziburuko txistularien lagungabe.

Donibaneko Euskera-Egunean ere, horiek eratua  
zen, eliza aitzinean Endore ta Erretore jaunei herri  
honetako gazteek eskainitako *aurresku* dotore hura.

Ta hara: bertze Ziburuko umezurtz bati egin zion Donibaneko aurrekulariak egun hartan dantza. Ez sortzez ziburutarra, neska begibeltz lirain hura ere. Tolosako alaba baizik. Tolosako zaldun-andere batzuen alaba. Eskuak hutsik -hutsik bezain garbi!- Zibururat aterpe bila etorri behar izanak, orain hamahiru urte dela, haiek ere. Ziburuko hilerrian dagoz, Hondarribiko zapatarien gurasoentzat egindako zulo ondoan. Jainkoak emandako sorterria maitatzeagatik, atera zituzten etxetik laurok. Laurok eta bertze zenbait milaka ere. Bidasoari eskerrak -Bidasoa etsai, Bidasoa lagun!- gure itsaso ta mendien artean ehortziak gaur, haien hezurak ere.

Donibanen egindako aurrekuari, goitik begira egonak badira, ez zuten guraso haiek atsegin makala hartuko, han zegoen arrantzale bati haien alabagatik entzutean: «Horixe aterako nuke nik ere, nehor ateratzekotan, plaza erdirat! Herriaren miseria ta eritasunak nola goxatuko baitabiltza, gau t'egun, andere gazte horren eskuak».

Barkatu, txistulari jaun eta andere gazte, gaur zuek hemen aipatu izatea. Ziburuko pestak dira egun-eta, pentsa gabe bururat etorriak zaizkit nire Ziburuko lagunak!

# MOSKUTXO TA WASHINGTONTXO, BELDURRAREN GORABEHERAK

Halaxe ibiltzen dira haurrak gustora: amatxi-edo, anaia-edo, neskamea-edo izuaraziz. Ate atzean gorde-ta, norbait ondotik igarotzean, ezkututik irten eta hari *huuu...!* egingo dio haurrak oi-hu. Besteak, ikara hartu-ta, *haaa...!* erantzutekotan, gure umearen poza!

Halaxe dabil-tza gaur, elkarrekin xarmanki josta-tzen, *Moskutxo ta Washingtontxo* gure mutiko polit-horiek ere. Ate-atzetik honek Huuu... egin ezke-ro, harek gero ohe azpitik kaska...!, besteari. Moskutxok tiro-bide bateko txispa ateratzekotan, Washin-gton-txok berriz, izebak ekarri dion bi kanoie-zko eskopeta ezarriko dio sudur aurrean besteari. Hala joaten zaiz-kie gure mutiko biei igande arratsaldeak ohartu gabe, zarataka. Ama etxera datorrenean, etxeko mahai, kadera, ohe ta tresna guziak hankaz gora ikusita, haserretu ta egingo dio dei bere senarrari: «Atoz, *Onu*, atoz. Atoz Jainkoaren izenean. Begira ezazu nola utzia diguten haur horiek etxe guzia. Noiznahi hasiko zaiz-kigu egitan muturjoka. Orduantxe izango dira kon-

tuak. Praxak nonbaiten utziak ez badituzu, jar ezazu hemen errespetu pixka bat!» Baina... don *Onu* etxekojauna (?), ez halere bere gelatik irtetzen, harek ez iskanbilarik nahi. Bergarako gau-herrizainak bezala egiten harek: San Pedro eliza inguruetan mozkorren batzuk kantuz edo zarataz sumatu ezker, ixil-ixilik, ostetatik... Santamariña eliza aldera poliki-poliki ibiltzen hasi. Bakoitzari zor zaio berea: gauza litzateke gure don *Onu* ere, Bergaran gau-herrimutil ibiltzeko.

Alferrik da: elkar joka hasi artean, ez dute gure mutiko bi horiek elkar iziaraziko. Beldurra! Ez da berau baino zoro eroagorik. Gure amarekin ikusia dut nik hamaika aldiz. Baita zuek zuenarekin ere ziur aski: semearengatik zernahi huskeriaz izutu; ta egiazko arrisku edo zorigaitzen bat heldu ezker, inor ez etxean hura bezain burujabe. Orain ere ez al duzue ludi zabalean gertatzen ari dena ikusten? Gizon pare bati burura etorri ezker, itsas lehorrak deuseztu ta erraustu ahal izateko lehergarriak egiten ari, ta hara nolako lasai gabiltzan denok, Da Silva Ramos etxera joaten utzi dutenean, tira ba, guziok pozik.

Kemenaren ta beldurraren gorabeherak zenbaterainokoak izaten diren agertzeko, bi gertaera hauek zaizkit burura maiz etortzen. Bata Churchillen *Guda-*

*Oroitzak* liburuan irakurria badut, Euzkadiko gerlaldian neronek ezagutua dut bestea.

V2 izena hartu zuten lehergarri haiek Ingalaterran erortzen hasi zirela, gauza berria izan hura ta, lurrera gabe helduak ziren bonba haietako batzuk behar izan zituzten eskuetan hartu, desegin eta ikustatu, barne-tik nola eginak zeuden jakin nahian. Ez zen lan goxoa. Talde berezi bat eratu zuen Ingalaterrako Agintaritzak eginbehar hori betetzeko. Inor hartara behartu nahi ezik, norbere borondatez agertu ziren, agertu zirenak. Churchill-ek dioenez, hartantxe utzi zuten gehienok bizitza. Konde zahar bat ere agertu omen zen lan hartara, bere neskame ta mutila zituela lagun: ez dakit zenbat bonba erabili zituzten hauek eskuetan. «Hiru-koitz Deuna» esaten omen zieten Ingalaterran. Azkenean, haietako bonba batek, eskuetan leher eginik, bota zituen hirurok airean txiki-txiki eginda.

Heldu ziren halako batez Ingalaterrara, V2 baino bonba berri indartsuago batzuk. Zulo sakon azpi batean gelditu zen lehertu gabe haietako bat. Gazti-gatu zioten Churchill-i. Laster ibili beharra zegoen. Churchillek, bonba-miatzaileetan buruen buru egiten zuenari egin zion berehala dei. Aipatua omen zen, Ingalaterra guzian, haren burujabetasun eta kemena.

Eman zion nagusiak agindua: «Bonba berri horren barneak eskuetan erabili eta miatu behar dituzu». Ez zen gizona asko izutu. Ikara-keinu handirik gabe, atera zen.

Goitik erortzean berorrek egindako zulo handi azpi batean, hantxe zegoen lehergarria. Sokatik zintzilik, jaitsi zuten gure gizona poliki-poliki zulo azpiraino; ta hasia zen lanean. Zulo-ahoaren inguruan geldituak ziren haren laguntzaileak, badaezpada, soka eskuetan zutela. Ta aditu zuten, halako batez, zulo azpitik gizona oihuka: «Atera! Atera ni hemendik! Azkar! Azkar!!» Sokatik tiraka, atera zuten gizona ta zulo-ahotik ahal den urrutien eraman ere. Bonbak leher egin behar zuelakoan baitzeuden.

-Zer gertatu zaizu? -esan zioten geroxeago, lehergarria ixilik zegoela ikusiz.

-Zer gertatu? -besteak zuri-zuri eginda erantzun-lanean ari nintzela, xagu bat ez zait ba oinetara etorri?

Heriotza eskuetan ibiltzen inoiz izutu ez zen gizona, sagu batek beldurtu!! Ta beldurrari dagokionez ere, hara Euzkadiko gerla-aldian guk ezagutu izandako bertze gertaera bat.

Bazebiltzan gurekin Bilbon, guda garaian, espainiar aitzindari banaka batzuk: jeneralen bat, bizpahiru koronel, bospasei beheragoko. Espainiar aitzindari haietako zen «el teniente coronel Azcárate», izenez berau euzkotarra izan arren. Gizon ttipi, pottolo, bake-tsu, ogi-puska hutsa. Baina... ez balek, belarri ondotik igarotzean, ateratzen duten txistuaren lagun. Ta Bilbo azkenetan zegoela -haiek egunak!- nagusitu zitzaion zeharo beldurra. Gizon-itxura ere galdua zen azkene-rako. Agirreren usainean, bazter batetik besterat ibiltzen zitzaigun, Carlton-en, gizarajoa eroturik, dardaraz. Bilbotik irten behar izan genuen gauean, haren ezin egona ikusiz, gogoan dut Basalduak pistola nola bularrean jarri behar izan zion esanaz: «Déjenos trabajar en paz o disparo». Gu Lehendakariarekin Turtziozerat heldu orduko, hantxe genuen hura ere. Baina... Turtzioz aitatu dugun ezkerro, egin dezagun hemen tarte bat. Santander muga ondoko herri hartan baititugu igaro, gure egunik ilunenak.

Agintaritzako lagunek eman behar izan genion naitanahiezko aginduz, atera ahal izan genuen Agirre, ez goizegi, Bilbotik Turtziozerat. Ez baikenuen haren bizitzarekin jostatzen ibiltzerik. Leizaolaren buru argi ta gizontasunpean genituen utziak Bilbon hartu behar

izan ziren azken erabakiak. Galdua genuen guda. Bilbo inguruko mendietan zeuden gure mutilak hegazkinen su-azpian erretzen. Burrukarako gauza ez zen oro -andre, haur, agure, zauritu, gurdi, oi gurdi aien kirrinka!, behi, ardi...- bideetatik zetorren ihesi, nahaspilan, haiei ere hegazkinek goitik egun ta gauaz sua zerietela. Agur egin beharra izango genion laster -muga-mugan baikeunden- gure Euskalerrinari. Turtziozoko jauregi zahar batean genuen Agirre egokitua. Handik ematen zituen zenbait agindu, burua beti, gerorako ere, amets ederrez betea. Etxe hartako leihoetatik egoten ginen, egonean egon, jatekorik ez eta aterperik gabe zebilen gure Herriari begira! Baina...

Burua galduta zebilen artean gure Azkarate giza-joa. Menpetua zuen ikarak. Izugarriak egiten zizkionten, trufaka. Egia esan... egiten *genizkion*. Baratzara eramanda, esan izan diogu: «Mi Teniente Coronel; imagínese que ese campo de berzas que tiene usted a la vista fuera un batallón a sus órdenes. Cómo arreglaría usted a sus hombres?» Ta hasten zen bera: «Soldados de la Patria! Ha llegado el momento de vencer o morir...» (Azak eta tipulak, lasai asko egoten ziren hari entzuten.) Behin batez, Lehendakariarekin ari

ginela bazkaltzen, atea zabaldu ta agertu zitzaigun bat-batean, zuri-zuri eginda, gure Azkarate koronela. Elkartu zituen oinak zarata handiz eta, izuzkia baino tenteago jarrita, esan zion atetik Lehendakariari: «Señor Presidente; mi decisión está tomada. He decidido no apartarme de Vucencia un metro; acompañarle a donde vaya y, si preciso, morir junto a Vucencia. A sus órdenes señor Presidente!» Ta irten zen. Ez dira esatekoak, haren aurrean barre ez egiteko, guziok egin behar izan genituen indarrak. Bazkalondoren, baratzan atzeman nuen koronela: «Qué efecto ha producido mi gesto?» esan zidan.

«Colossal -erantzun nion- pero aquí nos tiene usted a todos con un disgusto horroroso. Agirre ha decidido durante la comida, salir inmediatamente a tomar ese monte que ve usted ahí en frente, y que el enemigo tiene plagadito de ametralladoras. Pretende que le acompañen los pocos que le han hecho promesa de no apartársele y de morir, si preciso, junto a él. Debe de haberse vuelto loco. En este momento se está poniendo las botas para salir». «Pero hombre!! -erantzun zidan harek, eskuak bururat eramane- que un hombre tan grande se nos haya vuelto loco a última hora!! Esa idea hay que quitarsela de la cabeza ahora

mismo. Corro a lograrlo!» ta joan zitzaion. Mahai aurrean exerita, paperetan zituen Agirrek begieskuak, koronela oihuka agertu zitzaionean: «Señor Presidente, Vuecencia se ha vuelto loco! Cómo hemos de salir cinco pobres desarmados a tomar una montaña que está erizada de ametralladoras?» Ate atzetik, entzutekoa zen gizon bi haien elkarrizketa. Agirrek ez baitzekizkien, guk aurretik koronelari asmatutakoak!

«Este señor Otea, este señor Otea -zioen gero koronelak baratzan-, si no fuera tan amigo mío...!»

Igaro ziren hilabete batzuk. Santanderretik azken orduan atereak ginen. Aste bat-edo Lapurdin egin ondoren -hemengo bakea!- joan behar izan genuen laster Pariserat. Arratsalde batez, Iruxo aurkitu nuen Euskal Ordezkaritza ondoko ostatu batean, bakar-bakarrik. Eskuen artean zuen burua, ta ilun zegoen, paper-puntta bati begira. Exeri nintzen haren ondoan:

-Hara -esan zidan- irakurtzak. Hartu berria diat. Ezetz igarri norena den?

Buruan ditut -gutxi gora-behera- papertxo harek zekarzkien hitzak:

«Querido Manuel: Me queda menos de una hora de vida. He sido condenado a muerte y me van a fusilar. Ya ve usted que no me tiembla el pulso. Soy feliz,

pues muero por una idea a la que fui leal toda mi vida. Al otro don Manuel (Azañarengatik) dígame que le tengo muy presente en esta hora, así como a nuestro gran Presidente Aguirre. Si viera usted qué tranquilo muero, pues tengo la conciencia limpia! Y ahora un ruego: ocúpense de los míos...» eta abar.

Barneak egin zidan kolpez: «Hau Azkaraterena duk!» Eta halaxe zen.

Gizonaren gora-beherak!

Eta beldurrari buruz denborapasa ari garen ezkerro, aipa ditzagun, bukaeraz, Litvinov -Errusiako ordezkariak- Washingtonen, gerla garaian, izaten zituen ikaraldiak. Stalin bere nagusiari baitzion harek beldur. Irakur itzazue lehen aitaturako Churchillren liburutik jaso, ta hitzez hitz euskaratuak ditudan hitzok. (Nork esan behar, gudaldi gorrietan, Errusiako Litvinovi, Roosevelt Lehendakaria gizonaren arimaz eta Infernuko suari buruz mintzatu behar zitzaionik!) Irakur Churchillren hitzak:

«Ottawatik itzul, Washingtoneko Etxe Zurian sartu nintzenerako, behar ziren guziak gertu zeuden Laterri Alkartuen arteko Ituna izendatzeko. Roosevelt Lehendakaria ahaleginetan zebilen, Litvinov Errusiako ordezkariari «uzkurtza-aukera» hitz biok onartarazi

nahian. Hartarako, Lehendakariaren gelan geu biokin bazkaltzera ekarri genuen behin Litvinov. Beldur zen gizona zernahi onartzeko. Izugarriak baitzuten harek bere Herrian ikus eta ezagutuak. Nahiago zuen poliki ibili. Beste elkarrizketa bat ere izan zuten, geroxeago, Litvinov eta Rooseveltek, biok buruz buru, gai berataz. Mintzaldi hartan, arima aitatu zion Rooseveltek Errusiako ordezkariari, ta Infernuko suaz zitzaion mintzatu; aipatu zizkigun gero Rooseveltek, Errusiakoak entzun behar izan zituenak: hitz eder eta onbidegariak, egiatan, Lehendakariarenak!

Agindu ere egin nion ba: 'Hurrengo hauteskundeetan zapaltzen bazaituzte, Canterburyko apezpikua izan zaitezene saiatuko naiz'. Ez nien, ordea, ez Erregeari ez Agintaritzako ene lagunei honetaz hitzik egin behar izan; 1944ko hauteskundeetan, berriz ere, hura bera baitzuten lehendakari. Litvinovek azkenean, beldur-ikarak agerian zituela, aipatu behar izan zizkion hitz biok, «uzkurtza-aukera», Stalini. Honek, ordea, begiak kliskatu gabe zituen onartu».

Ta beldurra dela-ez-dela, kontu-kontari, hara noraino ekarriak gaituen, ohartzeko, Moskutxo ta Washingontxo gure mutiko bi horien jostaldiak...

# GURE «PARASOLAREN» IBILKETAK

Herenegun goizean ohetik jaiki, gogo-giro hobere-  
nean garbitu ta jantzi, bapo gosaldu, ta, kalerat irte-  
tzekoan, ai amatxo maitea!, tarrantarik ez etxeko ate  
aitzinean. Gauaz ostua ziguten!

Etxeko ate aurrean egiten baitzuen, gure beribil  
polit harek, uda ta neguz lo. Nahiz eguzki nahiz elur,  
oskarbi edo uhar, horma zuri edo hego-haize beltza,  
hantxe egongo zen hura geldi-geldi gau osoan, jabea-  
ren zain ate ondoan etzanik, zakur leialaren antzera.  
Ez zuen harek zakur izenik: *Lista*, *Turko*, *Txiki*. Izen  
luzea ta goxorik gabekoa: «17-17-N.M.5» Nonahi eza-  
gun baitzen ordea, ta Donibane euritsu honetan haren  
barnean ikusten baikintuzten beti, ezarria zioten doni-  
bandarrek izen polita: «Mende-Berrinekoen parasola».

Abereak askotan jendekiak adina, ta gauzak ere  
haien gisara maite izaten baititugu, bihotzekoa  
genuen guk ere gure beribil ttipi hura; beronek gazte-  
tzen baikintuen egunero; ta esaera zaharra betearaz-  
ten: «Non gure gogoia, han gure zangoa».

Ez baikintuen -ez beharrak, ez gogoak- urrun eroten. Paris, Berna, Erroma edo Berlineraino eroan behar izan bagintu, ez zuen gure beribil ttipi harek, beharbada, aski indar izango. Ez baikenion, ordea, halakorik eskatzen. Etxe barnerako genuen: Azkaine, Sara, Ezpeleta, Baigorri, Atharratze... gure tarrantak ez zituen arrotzerrietan oinak asko zikinduak, ez eta bide zuzen zabal haietan tximista bezala ibiliz, bihotza unatua ere. Euskalerrri barneko suge-bideetan egunero ohitua, berez hartzen zituen honezkero noranahiko bideak, eta adiskide zaharren etxe-aitzinetan gelditzen. Bazekien herri bakoitzean nor edo nortzuk hartu beharko zituen: gure bilkura-egunak eta, buruz baitzekizkien. Oxobiri hartua zion beldur pixkat: leku lasaia behar izaten baitu horrek; Lafittegatik esana dit: «Hau bezain mehe eta arinak behar nituzke, jauna, eskualtzale guziak!». Saint Pierre apezpiku jauna, halere, gogotik hartuko zizun bere baitan: pixu handiko gizona izan arren, galtzerdi amukozkoak baitzekarzkien harek! Lotsagabe xamarra ere bazen, egia osoa esateko, gure «17-17-N.M.5» gaizo hura. Sota'neko Manuri ez zion ba behin esan: «Berorrek ere, jauna, nire antzeko bat erosiko balu, lan erdi niretzat». Ene lotsa! Jo ta zehatuko nuen, egun hartan.

Airean eroaten gintuen harek, Iñauterietan, Zuber-  
roa alderat. Hango dantzarien jauzi zaluak baitzituen  
maite. Ta harro asko hartzen zituen -Pazko-Zaharrez-  
Basarri, Mattin, Xalbador, Etxahun, Xanpun... bertso-  
lari-sena beti izan baitzaio arin. Umore onean eta kan-  
tari eroaten gintuen, Pesta-Berri egunez, Armendaritz  
eta Iholdirat: hango mutikoen otoi-dantzak baitzituen,  
denetarik gain, laket. Eta Azkarateko Katalin kantari  
zaharraren ate aurrean behar izaten zen beti gelditu:  
harek ematen ziola-ta euskal abestiari beharrezko  
gurpila. Biriaturaino ere eroanak gaitu hamaika aldiz;  
ta hantxe egoten ginen, egonean egon, gure beste  
aldeko mendiei begira. Euskalerraren gorputza esku  
tartetik ebatsia digute beraz, beribilarekin batera!

Orduak joan eta orduak etor, ez zen gure tarranta  
gaizo hura inondik ageri. Hamaika lagun hurbiltzen  
zitzaizkigun, ixil-ixilik galdezka: «Egia al da?» «Eroan  
al zuten?» «Ez al dituzue ertzainak jakinean jarri?»  
Entzutekoak omen, etxeko neskatoen erantzunak:  
etxean norbait hila, esan zitekeen.

«Adizak -erran zidan arratsalde hartan gure adis-  
kide batek- zergatik ez zinateke igartzale batengana  
joango? Soka-puska batetik pilotatxo bat zintzilik  
jarria izaten dutela, badakite haiek askotan -pilotak

hartzen duen joerari begiraegoki- zernahi atzematen. Ezagutzen diat nik, hemen Donibanen, igartzale horietako trebe bat. Joan hadi harengana lehenbailehen». Ta aipatu zidan haren izena. «To! -erantzun nion zalantza handirik gabe- ez duk asmo tzarra. Joanen nauk». Esan t'egin, ordu erdi buruko, igarlearen aurrean geunden andrea ta biok, harek soka estu batetik zintzilik eskutan zerabilen pilotatxoari gure lau begiez josita. Gelditu zen holako batez pilota; ta gero-xego... ttaka... hartu zuen beste bide bat. «Akabo! -gure gizonak oihu-, eroana dute zuen beribila Marsei-llarat! Toki ona duzue lapur-habia hura, han zernahi atzemateko!» Etsita, buruak apal, bihotzak itun, ixil-ixilik itzuli ginen senar-emazteak etxerat.

Zertarako aipa, gau hartako ametsak? Hurrengo goizez -iguzki-goiz eder- leihotik nengoela baratzaina-rekin mintzo, agertu zitzaigun herriko ertzain bat. Jait-  
tsi zen bere bizikletatik. Aurpegi alai ta kolore gorri onak zekarzkien. Baita arnasa ere estu xamarra. Ta egin zidan behetik oihu «Berri onak zuretzat, jaun Otea! Oraintxe dut zuen tarranta ikus berri. Ertzain batek zekarren. Laster duzue hemen, laster!» Eran-tzun nion, ene poza izkuta ezinik: «Nola baina? Mar-seillatik ekarrarazteko astirik izan?» Eta harek: «Mar-

seillatik? Ez zenuen horren urrun joana. Ziburun zenuen, Ziburun...» Ziburun! Egin nion ene buruari: «Azkarragoa duk bai Arranbilet-en eskutan pilota... igartzalearenetan baino!»

Herri txiki, herri kozkor, zuek gizonaren lagun! Hirian sortuak ez daki bizitzearen berri. Parisen izan bagina, ez zen ertzainik arnasestuz guri berri-on ematerat etorriko. Harrizkoak baitituk hiri nagusiok; ez herri hauen antzera, odol ta haragizkoak. Hirikeriaren hotza baino nahiago diat herritasunaren beroa. Parisen izan bagina, gu ibili beharko -oinak hanturik, ertzainetxez ertzainetxe- entzutekoak eta ez-entzutekoak entzuki, gure berebil gaizoaren atzetik lotsatuta. Ta atxemanik ere, ez ziguten «Mende-Berrinekoen parasola» itzuliko; bestea baizik: «*Une Peugeot 202 N.M. 5-17-17*». Odol ta arima gabekoa!

Eguzki ta itzal, ekaitz eta xiri-miri, egurraren su ta errearen ur, liburu ta paper, etxe-zoko ta mendiaren eder, eltzekariaren ke, elizako kanpai, nahiz makila, nahiz asto, nahiz beribil... inguruko gauzak oro ditugu odol ta haragizko. Behar genituzke Jainkoaren opariok barneagotik maita. Bihoztunak oro eder, oro bere:

*Le poète en tout lieu  
se sent chez lui sentant*

*qu'il est partout chez Dieu...*

Baditu Francis Jammes olerkari gorenak ere, gauzak nola maita behar genituzkeen erakuts nahiz, zenbait bertso eder: bere Hazparneko etxean dugu olerkari zaharra, iluntzez, leiho-ondoan bakar-bakarrik. Gurasoen denborako mahai, kadera ta etxe-tresnak ditu bere inguru: haiekin, banaka-banaka, ari zaigu olerkaria hizketan. Atea zabaldurik, bat-batez, sartu zaio gelara norbait; eta agurtu du, sartzean, gure gizona: «Nola zara, Monsieur Jammes?» Harritu da bestea; ta bere inguruko etxe-tresnak sartu berriari erakutsiz, diotsa: «Nola! Ni bakarrik agurtzen al nauzu? Bakarrik al ninduzun ba?»

Askotan zait bururat etorria; zergatik ez ote zaie haurrei, eskoletan, inguruko gauza guziak alaiki ta barneagotik maitatzen irakatsiko? Edertzaleari, oro baitzaio eder eta pozgarri. Maitatzen ikasgabearentzat, inon ez atseginik. Haurrei, gela ilun eta zikinetan *Recesvinto, Chindasvinto, Sigerico, Wamba...* ta hamaika antzekoren izenak buruz irakasten ibilki baino, hobe bizitzaren egiazko arnasa ta gauza guziek izkutuan daramaten ederra atxematen, erakutsiko bagenie. Haurren irakasle oro, behar lirateke olerkari izan: hartarako ez da bertsoak egiten ibili beharrik.

Zabal ditzagun bai zuzenago, gizonkiago, munduko ontasunak. Goazen bide horretatik urrats luzez. Baina... ez dezagula hauxe ere ahortzi: aberatsagoa duk bihotz aberatsa, sakel aberatsa baino.

Senpereko bidetik zetorren atzo mutiko gazte bat, bere gurdi ta idien aurretik kantari. Ta haren arrebak egiten zidan, anaiari begira: «Hori? Horrek ez lituzke bertze zernahigatik bere orga ta idiak emanen!»

«To! -aritu nintzen ene baitan, mutikoari so- ongi hartua diok hik zorionari gurpila!»

Gure esaera zahar hura, «*Aski dakik bizitzen bada-kik*», honelaxe ere erran baitzitekeen: «Aski dakik maitatzen badakik».

Norberaren etxetik uxatua izan denak ongi ikasia baitu, harriari ere gizonak behar liokeen maitasunaren berri.

1951

# NEW YORKEKO MISS GRIFFING ETA BERGARAKO KASIMIRA

Lege Zaharraren adiskiderik itsuena izanagatik, aitortu beharra dut leialki: badira lege berri onak ere. Ta hauxe esango nuke gainera: ezkertiarrei dizkiegu mundutarrek zor, lege berririk txarrenak eta... hobere-nak ere. Hoberenak ere, bai jaunak! Gizonak gizonari behar liokeen maitasun-bidean, ezkertiarrek baitzaiz-kigu aspaldi honetan aurretik ibiliak. Gaurko langileak ez lirateke, beharbada, bizi diren bezala biziko, soso-listarik izan ez bazen. Egia egi, emaiogun behar beza-la bakoitzari berea. Baina kasu: ez genituzke ahantzi behar ezta ahantzi nahi, azken urte hauetan Langile-Biltzar Kristauek ere, Europa osoan hartua duten indar eta lortuak dituzten aurrerapenak.

Ez nator ni, beraz, mota guzietako langileen alde eginak diren lege berri eder horien aurka. Egin behar-ko dira bortitzagoak ere. Ta ez izutu: lege horiek izi-tzen bagaituzte, Jainkoaren aginduak gaitu izitzen.

Ta halere, barkaidazue galdera bat: gizonaren zorionari buruz, oraingo hamaika lege baino onuraga-rriagoak ez ote ziren, gure aspaldiko beste hamaika

ohitura zahar? Hogei lege eder baino hobe baitzaio Herri bati, ohitura on bat. Hara zer esan nahi nukeen: bertzeen legepean gaurkoz bizi behar izanagatik, atxiki ditzagun azkarki gure ohitura zaharrak. Euskalerrian noizbaiten euzkotarrek agindu behar badute, *Ohiturazahar* iturritik edan ahal dezaten gure orduko lege berriek. Lehendanik gabeko legeak, ez baitu geroko luzerik izaten.

Eta hara nola etorriak zaizkidan gogoketa merke hauek burura. Lagun batek idatzi baitit New York-etik atzo: «Gogoan al duzu, hemen ezagutu zenuen Miss Griffing? Joan den astean hila omen. Ez genekien erizenik. Ezta non bizi zen ere. Agur egin zigun ezker ez genuen haren berririk. Zakur mukitsu ta katu zahar batekin bizi omen zen. Hauek izan omen ditu heriotz lagun bakarrak. Herrirakoan ere, haren gorputzak ez omen bide-lagunik eroan. Hiri handi hauetan ez baita lan erraza elkarren berri jakiten ere...»

Ixil-ixila gelditu nintzen luzaro, sutondoan, berri hau irakurri ondoren. Miss Griffing izango ez nuen ba gogoan? New York-en egindako ezaguna nuen hura; ta hara nola.

Heldua nintzen, lehenbiziko aldiz, New York-erat. Hegazkin barnetik erdi xoraturik jaitsi azkenean, eta

Jainko maitea!, zeruetarainoko lukainka-etxe luze haiek begiratzuz, orduantxe zorabiatu nintzen zeharo. Igaro nituen, eroturik, hango kale nagusi batzuk; ta hara egia: Goitibehera ta behetigora antxintxiketan zebiltzan gizon-emazteki erotu haiek ikusiz, denok batera ipurdian su-hartua zutela esan baitzitekeen, izitu ta alde egin nuen nik ere antxintxiketan hiritik kanpora norabait. Ene buruari egiten nion gero, kope-tako izerdia txukatuz: «To! Ez zaizkik hala ibiltzen, hire Herriko itzainak».

Hiritik kanpo bizi baitzitzaizkidan adiskide batzuk. Bazuten etxe txiki polita, baratza eta guziz. Heldu orduko jarri ginen, etxeko jaun-andere ta hirurok, arbolapean gosaltzen. Sartu zen halako batez, baratza barneraino, *aiga* horietako beribil eder, luze, ixila...; jaitsi zen haren barnetik andere apain bat; eta gure ondotik igarotzean, agurtu zuten ene lagunek: «Good morning, Miss Griffing!» Andere harek buruan zekarren txapel pinpirinari begira, galdetu nuen ixilik: «Nor duzue hori?» Ta haiek lasaiki erantzun: «Hori? Gure neskamea. Goizean etor eta iluntzean joan, beronek egiten dizkigu etxeko lan guziak». Hau entzutean, ez dakit aulkitik lurrera hankaz gora nola erori ez nin-

tzen. Zer esanik ez: lehendik erotua banenbilen, harek ez ninduen sendatu.

Geroztik, ene lagunak etxera joaten nintzelarik, keinuz mintzatu behar izaten nintzen Miss Griffingekin, Jainkoak ez baitzigun hizkera bera emana. Irri goxoak egiten zizkidan halaxe, ta nik hari egundainoko erreberentziak. Behin batez, deitu ninduten ene lagunak afaltzera. Beste bertako adiskide batzuk ere deituak zituzten. Exeri ginen mahai inguru; ta salda hartua genuen, sukaldeko erlojuak zortzi orenak jo zitueneko. Orduantxe gertatu zen gertatu beharra: amantal zuria soinean zuelarik salda ekarri ziguna -Miss Griffing- sartu zitzaigun jantokian bere txapel pinpirin, euritako ta eskunarruekin; eta agurtu gintuen alaiki erranaz: «Good by Miss and Gentlemen. Excuse me: It is already eight o'clock. Good by!» (Agur jaun-andreak. Barka: zortziak jo dute. Gabon denei. Bihar arte!) Ta joan zen. Baratzatik etorri zitzaigun, haren berbilaren ateratze-soinu ixila... Inor ez zen harritu. «Etxekoandre -esan zuen mahaikide batek- ohitura den bezala, guziok lagunduko dizugu gero, plater-gar-biketa egiten.» Eta umore onean, izigarri gau ederra bota genuen.

Lege ta eskubide guziak zituen Miss Griffing-ek bere alde: eritu, erori, zahartu, ezkon, berriz jaio, hil... edo bertze zernahi gerta, denak zituen harek aurretik ordainduta. Bizi ta hil zitekeen, beraz, lasai. Ta irabazi? Harek irabazten zuen laurdenarekin, ez lirateke Frantzian negarrez biziko nik ezagutzen ditudan hamaika markesa. Miss Griffing-ek bere nagusien etxean egin behar izaten zituen lanak ere ez ziren gogorregiak: hautsak bildu, azpiak dirdirazi, bazkaria gerta, xuriketa egin edo haurrei prakak aldatu behar zitzaizkiela... denetarako baitzuen harek tximistindar-tresna bereziren bat. Ai Ama!, tximistindar-tresnatzat hartua baitute, Ameriketan, neskamea bera ere. Han, nagusiek neskameari «Good by miss Griffing» edo «Good morning Miss Henessy» esaten diotela, barnetik haxe esaten diote ohartzeke: «Good morning Miss Frigidaire» edo «Good by Miss Aspirator». Ez besterik!

Gure Miss Griffing ehortzi dutenean ere, izango zuten, haren gorputza lur azpian sartzeko, beste tximistindar-tresnaren bat. Baina... ez zulo ondotik ari agur egingo zionik. Barnetik elkar maitatzeko, ez baitute oraindik inon tximistindar-tresna berezirik asmatua.

Miss Griffing izanaren heriotza ilun harek, ene haurtzaroan ezagututako beste neskame zahar batzuen izenak ekarri dizkit burura: Zurbanoneko Joxepa, Lardizabaleneko Karmele, Zabalaneke Brauli, Untzetaneko Kasimira... eta beste zenbat eta zenbat halako! Zer esango ote zuen haiengatik gure Miss Griffing izanak? Eta haiek honi buruz, zer pentsa? Marte ta luditarrak ez lirateke, beharbada, elkarren-gandik urrunago.

Lehen aipatutako izen maite horien itzalpean -Joxepa, Karmele, Brauli, Kasimira...- igaroak ditugu gure haurtzaro ta gazte-denborak. Haien agindupean izan gara bizi. Haiek betearazten zizkiguten gazte-gaztetarik, herriko lege ta etxeko ohiturak. Gure odolkoak izan baziren bezain gureak genituen: *etxekoak* baitziren. Eta Euskalerrriak elkarren senidetzat ditu, teilatu baten azpikoak. Euskaldun etxe jatorretan -nahiz jauregi izan, nahiz basetxe- ez duzu ez *nire* ta ez *zure*-rik entzungo: denek dena *gure*. Ta mutil edo neskameari, etxeko-jaunari bezalaxe entzungo diogu esaten: *gure* etxe, *gure* ondasun, *gure* haurrak, *gure* hilak, *gure* otoitzak, *gure* eskubide ta eginbeharrak, *gure* izena ere: etxekoarenagatik. Gurean, *gure*-rik gabeko etxeak ez digu ez euskal ez kristau usainik.

*Gure!* Hitz horren indarrak dauzka, menderik mende xutik, Euzkadiko etxeak; hitz horren aginduari jarraitzeagatik, utziko baitiote gaur ere, Gipuzkoa osoan berez-bere!, seme edo alaba hautuari, haren beste anai-arreba guzietan, etxe-jabetza. Ta *gure*, hitz horren indarrez biziko zaizkizu neskame eri edo zaharrak nagusien etxean, etxean, etxekoandrea bera eri edo zahartu izan balitz bezalaxe: teilatu, barne-giro, janari, su... ta askotan hilobi berari begira. Lege berri hotzak ez digu ez, ohitura zaharraren berorik emango.

Bergararik inoiz igaro izan bazara, ikusiko zenuen «Etxe-Aundi» jauregi zaharra, errekarri hurbil, zubiaren albo. *Oxirondo* duzu haren egiazko izena; ta etxearen ikurritza berriz, *Oxirondo baino lehen, Oxirondo*. Esan nahiz: «Auzoa bera baino zaharragoa nauk». Zarauzko jauregiaren antzera: *Zarautz baino lehen, Zarautz*. Horra ba: etxe zabal hartan bizi ta hil zen, bergararrek ezagutu dugun zaldunik prestu ta herrikoiena. Ez naiz hango etxekoandrea zuzengo ta edertasunari buruz mintzatuko: azkarrean baitaramazki gaur ere bere laurogeita hamar urteak, eta beharbada... bere besoetako honi errietan egingo.

Etxe hartako neskame zen Kasimira. Hirurogei bat urte eginak zituen etxean. Mutxuridin-sorgin itxura

zuen. Etxeko semeek hartuak dituzte haren heriotza eta hiletak: herri osoa, beltzez, gorputzaren atzetik. Eta Kasimira izanaren azkenahi-agiria zabaldu zutelarik... etxeko bi semeetarik bakoitzari zizkion utziak, garai hartako hemezortzi mila laurleko: bere bizitza osoko irabazi guziak!

1936garren gudaldi bizian, bai Gipuzkoa ta bai Bizkaitik, honuzkalderat ihesi ta eskutsik etorri behar izan ziren hamaika sendi. Ezagutu izan ditugu, neska-meak kolkotik aterata eskainitakoari eskerrak jan ahal izan duten nagusiren batzuk.

Zaharturik eta eri, deusetarako gauza ez zela, ikusi dute iaz, Donibaneko kaleetan Urkijoneko Julio: Donostiatik heldua, beste eri zahar bati -Janbattit, haren mutil izanari- agur egiterat etorri zitzaion, hil baino lehen. Euskal jakintsuek ez zuten beharbada Janbattitek adina minik hartuko, haren galtzeaz.

Eta horra Miss Griffing, zure heriotzak biziara dizkidan hilak. Honezkero, Jainkoak hartua zaitu agian bere albo. Hala balitz... Joxepa, Karmele, Antoni, Brauli, Kasimira eta haien lagunei goraintzi! Nola ezagutuko dituzun? Aise: Jainko Jaunari ere, Zeruan, orain honelaxe hitz egingo baitiote haiek: «*Gure* izarrak-eta,

*gure* aingeruak-eta...» Gizonak esan al liezaioke Jainkoari ere, ederragorik?

*1951*

# **CECILE SOREL ETA BORDA-ZURIKO AMATXI**

Hogei urte! Adin polita. Esaniezaiok –hogei urteko mutil gazte– zahartzen hasia den erregeari: «Zu baino handi, ahaltsu ta aberatsagoa naiz». Harek irri egingo balik, egizak haren aurrean jauzi eder bat; igo hadi gero antxintxiketan mendi gaineko iturriraino ta itzul; egizak haren aitzinean dantzan; eta esaiok gero: «Ni adina bazara, Errege jaun, egizu zuk orain beste hainbeste». Ta orduantxe agertuko zaizkik, haren arlotekeria ta ahultasunarekin batean, hire ondasun eta aberasgoak.

Gizonen elkarganako gorrotoetan, zahar etsi-ezina gazteari diona ere ez da makalena. Txiroak aberatsari, maizterrak etxejabeari, zakurrak katuari edo azkoitiar batek azpeitiar bati ez dio, beharbada, zaharrak gazteari izkutuan dakarkion adina gorroto. Aski duk gazte, kolean habilela, adineko gizon bati –nahi gabe– haren ondotik igarotzean bultzadatxo bat ematea. Ikusiko dituk haren begitako txinpartak, sutan dioela: «Gazte ero, zozo horiek!»

Ezagutu ondoren, esku artetik ihesia zaigun ondasunak ematen baitigu gibel-minik handiena. *Negu* atsoak ez diola *Udaberri* neskatilari gorrotorik? Noski! ez baitu inoiz ikus eta ezagutu izan. Bestela? *Neguk* ez luke, beharbada, daukan ixiltasun eta bakerik.

Gazteak ez dio zaharrari gorroto. Ezta beldurrik ere: ez baitzaio zahartu beharra denik iduritzen. Aingirak gizonari esku artetik bezalaxe, nahi izaten dio ihes egin gazteak zaharrari. Ta ikustekoak dira, gazteak beren alborat ekarrarazteko, zaharrek menderik mende alferrik asmatu izan dituztenak. Eskerrak goseari: goseak ekartzen baitizkio zaharrari, gazteak albora. Xaguak gasnaz harrapatzen diren bezalaxe, zaharrek eltzekariz harrapa behar izaten dituzte gazteak. Inon ikustekotan, mahai inguru ikusiko baitituzu zahar eta gazteak luzaro elkarrekin. Igande arratsaldean, bazkaldu ondoren, dantzara joana zaion ilobarengatik, erranen du aitatzik bere barnean: «Hoa! hoa! Gosetuko haiz gauerako; ta itzuliko haiz». Ta sukaldeko mahaia begiratuko du amultsuki.

Gizonak ikas litzakeenetan, zahartzen ikastea litzaiguke ederren. Ez da ikasgai gorenagorik. Ludikolan guziak bete ondoren, heriotzaren ate aurrean exerita, Goikoaren deiari begira dagoen zahar polit hura

dut maite: Borda-Zuriko amatxiren antzera. Harena ez al dakizue? Eguzkiarekin jaikitzean, goizero, oraindik bere burua bizirik ikusiz, esaten omen die bere seme-alaba ta ilobei: «Jainkoak ahantzia ote nau?» Ta haiek erantzuten diotela: «Zer ba amatxi? Gurekin asperetzen al zara, ala?», besteak erantzuten: «Ez, ez; ez nauzue joateko prexatua, baina hemengo lanak bukatu genituela aspaldi-ta, Goiko Harek ahantzi ote nauen naiz beldur.» Eta alaiki -berak hasitako lanari gazteek nola jarraitzen dioten begira- supazterrean neguz, arbolapean udaz aurkituko duzue hura, heriotzaren zain.

Zahar polit horiek zaizkit eder; ez beste agure ta atso gazte-nahiok. Cécile Sorel atzemana dut lehen-goan Pariseko kale batean: heriotza zirudien neskati-laz jantzia. Hura baino ederrago zait, bai, Borda-Zuriko amatxi. Alaigarriago ere. Baina!, ez da lan erraza, gero, haren itxura hartzen: bizitza osoko neke, malko ixil, izerdi, maitasun garbi ta otoitzez egina baita zahartzaroaren irribarrea.

Herriaren etorkizunari begira, gazte ta zaharren arteko hartu-emanak dira, ene ustez, zail eta beharrezkoenak antolatzen. Beti ezpainetan dabilzkgun nagusi ta langileen arteko gorabeherak bezain zail eta

beharrezkoak. Hauek baino, elkarrengandik urrunago bizi baitira askotan haiek. Eta zaharrentzako zekeenagoa baita askotan gaztea, langilearentzat nagusirik ankerrena baino. Zer ba? Gizonari zor zaizkionetan, ez al zaio dirua besterik zor?

Etxeko itzalak, supazter inguruko beroak, etxearen izenari zor zaionak ekar liezaioke zaharrari gaztearen begirapena; ta gazteari zaharraren eskola ere: «Zaharrak liburu, hek errana egizu...» zioten euskaldunek.

Gure baserriz baserri ibiltzen naizelarik, hango zahar eta gazteen arteko hartu-emanak zaizkit ukigarrien: etxearen indarrak baititu adin eta maila denetarikoa elkarrerat biltzen. Zer ba? Etxeak ez al du honezkero guretzat nortasunik? Etxeko suari kendu nahi al genioke, gure arbasoek emana zioten mintzo ta iritzi-emate ahala? Non legoke gure Lege Zaharra, jaunak? Non gure egiazko herritasuna? Aberriari zor zaiona, ez al zaio haren aurretik etxeari zor? Etxeak behar zaizkigu, gizonen aurretik eta gainetik, mintzo. Etxeari -etxeako suari- autarkiarik ez ematekotan, joan zitekeen niregatik beste demokrazia kanpotiar berri-tsu hori... gugandik urrun hitzaldi ederrak egitera. Lege Zaharraren alde bagabiltza, gabiltzan Lege

Zaharrarekin. Eta gauden geu: Ziminoak ez baitira, nik dakidanez, gure oihanetako seme.

Berrogei urtetik gora, gaztaro ta zahartzaroaren artean nolabait zankalatraba gabiltzanok, hobeki uler ote genitzake gazte ta zaharren arteko adikaitzak? Hauxe deritzait egia: zaharrendik, atzo baino urrunago aurkituko ditugu bihar, gure Herriko gazteak. Hamabost urte igaroak ditu gure eskualde harek, arrotzaren hankazpian. Itsu, gor eta mutu bizi beharrak izan dira gure herritarrak, hamabost urte hauetan. Lokarriak hautsi ta kioletako atea zabaltzean, ze bide hartuko, ta ze kanta eginen dute euskal txori gazteek? Ez, beharbada, guk erabilitako kantu ber-bera. Ez ote ditugu aldenduko, txorimaloek uxatzen dituzten bezala? Zuhaitzaren iduria hartu ezkerro, laster helduko zaizkigu txoriak adarretara. Baina zuhaitzak lurrean sarturik ditu bere erroak. Horrengatik haritz zaharrena ere, beti gazte. Sar ditzagun geuk ere, geure erroak lurrean. Eta bizi gaitezten, geu ere, euskal txori gazteak -bihiotz-hegaz, pentsa gabe, berez-euskal oihanetara.

Biharko euskaldun gazteek, ene ustez, ez diote Borda-Zuriko amatxiri barrerik egingo. Baina bai Céci-

le Sorel zahar-gaztenahiari, gorulari-neskatilaz jantzi-  
ta, zortzikoren bat, erderaz!, abestu nahi baligu.

Lege Zaharra beti gazte!

*1951*

# APEZA NOLA EZAGUTU DUDAN

*(Alde honetako jaun apez gazte  
ta apezgaien deiari gogoz erantzunik,  
Monzon-Olasok haiei Baionan  
egindako hitzaldia.)*

Bergara esaten zaion herri zahar bateko etxe zahar batean nauzue sortua. Elizari hurbil. Gure senideko etxeak oro, herri zonbaitetan, elizari hurbilenak omen. Izanen dira, haatik, Jainkoari gu baino hurbilago bizituak anitz. Sakristiako usainak ez baitu gizona berez aingeru bihurrarazten. Ez eta emaztekoa ere, askotan.

Etxean ez genuen ordurik behar: elizako orduak aginduko baikintuen, ez eta kazetaren beharrik ere: elizako ezkiek baitzizkiguten (kantari edo negarrez) herriko berri oro emaiten: nor sortu, nor ezkon, nor eri, nor hil edo ehortzi. Gauaz ere, zonbait aldiz, haize-hegoaz, herri barneko etxe edo kanpainako bordaren batek sua hartu zuelarik, elizako ezkiek gintuzten gu lehen-lehenik iratzartzen. Eta entzutekoak ziren karrikako oihuak «Sua! sua!» elizako ezkilak ari zirela

artean, boz ilun eta bortitz batez, urketarien eske. Bertze zenbait aldiz ere, apaiza karrikaz karrika bere lagun eriarri zihoakiola, ezkiñño ttipi batek erraiten zigun «Jainkoa dut gibeletik», eta haren entzutez leihoak oro emeki irekitzen, etxeakoak -esku arteko lanak utzirik- zirela leihoari hurbil belaunikatuko. «Nor da eria?», emaztekiek etxe batetik bertzerat elgarri solasean. Eria herrikoa bazen, bazuten haiek, hari buruz, nahikoa blaga, espantu ta negar. Baina eri hura kanpainakoa izatekotan, erranen zuen norbaitek, ize-nik ere aipatu gabe: «Baserrikoa omen». Hura entzutez, lasaitzen ginen herrikoak oro eta bertze xehetasunik galdetu gabe, berriz emeki-emeki leiho denak ixten. Gaur Errusiari Ameriketa bezain urrun bizitu baitzaio gure Herrian beti kalea baserriari.

Ez haatik, harria sabelean, laino beltzak hurbil zitzaizkigula. «Harria!, harria!». Elizako ezkilak eskatzen zion, orduan ere, herriari otoitza. Eta lehenbiziko euri-tanta zabalak arrabots bitxi batez zerutik jausten hasiak zirela, gure etxearen aitzinetik pasako zen lasterka, parasola zabalik, eliza alderat apezen bat. Eta trumoi eta tximista artean elizaren aterpetik igorriko zion laino beltzari handik laster urruntzeko agindua. «Frantziarat!», «Frantziarat!» erraiten omen zien erre-

tore zahar batek, bere herritik urrunarazi nahi zituen harriz beterikako laino beltzei. El Cid baino espainiaragoak ziren nire gazte denborako gaixo apez zahar haientzat, Frantzia baitzen bekatu ta gezur ororen sor-terri, ta Satan deabru madarikatuaren bizilekua. Galde egiezue egungo espainiar apez eta apezpikuei ere Frantziako berri: entzunen duzue zerbait!

Ezkilaren umea nauzue beraz. Elizako ezkila hura baitzitzaigun agintari. Eta hari genion herritarrek jarraitzen, haurrek amaren bozari -ez beti pozik baina ixilik- segitzen dioten bezala. Oi bai! Amarik ezagutu ez duten haurrak bezain errukigarri zaizkit, hiri handi horietan ezkilarik entzun ez duten gizon-emaztekiak. Haiei ez zaie bizitza, guri mintzo zaigun bezain barne-  
tik, indarrez eta goxoki mintzo. Ezkilak ez ditu legeak egiten. Baina bai ohiturak. Eta Herri bati usaia onak zaizkio balio: ez legerik ederrenak.

Ohituak zarete zuek ere jaunak, Virgiliok maite izanen zituen Lapurdi, Baxenabarre eta Zuberoako laborantza-herri ferde ta xuri horietan, elizako ezkila-  
ren agindupean bizitzen. Baina kasu: Gure Bergara ez baitzenuten Ainhoa edo Iholdiren itxurako. Eliza eder, jauregi zahar eta ola handi-ttipiz betea duzuen zaldun eta langileen herria da hura. Oihala urdintzen eta bur-

nia sutan gorritzen aspaldi ikasia den herria. Ta hale-  
re, Gerezietao bizpahiru ehun laborariak bezain Lege  
Zaharrari atxikiak zenituzten Bergarako bospasei mila  
langile haiek, eta elizako ezkilaren aginduari zuen  
laborariak bezain lotuak. Ezkilaren ahotik, lehen, orain  
eta geroko Bergararen arima osoa baitzitzaion herria-  
ri, egun oroz eta oren oroz mintzo. Noski: ezkilaren  
gibeletik, «apezek azken hitza bere». Hori ere... ez  
beti goxoa.

Ez zen gauza bera Eibarren. Bergarari hurbil zaio  
Eibar, Gipuzkoako herririk eskualdunena. Ola ttipi ta  
handiz betea duzuen herria, hura ere. Munduan izen  
handikoak dira Eibarko langileak. Baina, behar bezala-  
ko etxe-gizon eta eskualdun garbiak izanagatik,  
ezkertiar eta sozialistak zenituzten Eibarko langile  
prestu ta trebe haiek: mundu zabalari begira emanak,  
beren ustez; ez -ia! ia!- gu bezain Meza Nagusi, kan-  
tika-otoitz eta prozesionezaleak. Eibartarrek apezku-  
metzat gintuzten gu. Eta guk haiek, Satan deabruaren  
semetzat. Haurrak ginelarik, gaiztakeriaren bat egin  
bagenuen, «Hago, hago haurra -erraiten ziguten etxe-  
ko neskato zaharrek-, hol-hola segitzekotan laster  
etorriko zaizkik eibartarrak». Eta ikustekoa zen, hitz  
horren entzutez nola harritu ta izitzen ginen. Gure

ingurukoentzat, ez baitzen apezengandik urrunsko bizi zitekeen gizon presturik. Anitz aldiz errana digute neskato on zahar haiek astoari begira ere: «Kasu, haurra, astoaren ostikoari. Ez hurbil! Konfesatzen ez direnekin ez baita sobera behar fiatu». Egun ene bizitzan barna ikusi behar izan ditudanak ikusirik, hartzen hasia naiz konfesatzen omen diren zombaiti ere beldur pittat.

Zortzi-hamar bat urte nituela, arratsalde batez, amari lagun nindoakion, Bergarako inguruetan ibilki, zaldi-gurdi batean. Bagenuen gurekin, orduan ere, apez bat. Eta zaldiak izitu zitzaizkigula, bidearen ertzean gelditu ginen dilindan, zaldiak erori, zaldilaria eri, eta karrozaren barnekoak ezin jaitsirik. Ama izitu zen, gu haurrak ere bai; ta gure laguntzeko inor ageri ez zelarik, ikusi genuen bet-betan, gureganat lasterka heldu zelarik, Bergaran arras ezaguna zen midiku zahar bat. Ez zen hura eliza barnean ustelduko zen gizona: ezkertiarra omen eta ez apezaren lagun. Hura gure aitzinean ikustean, erran nion ene buruari: «Akabo! Honek ez digu gauza onik egingen». Baina kotxearen atea poliki irekiz, lagundu zuen ama jais-ten, hartu gintuen gu besoetan, altxa zuen zaldilaria bidetik, atera zuen nolabait barnetik apeza ere. Egun

hartan zabaldu zitzaizkidan begiak: ez zen hura niri errana zidaten bezain gaizto. Ebanjelioaren alegia gertatu zitzaigun guri ere.

Donibane Lohitzunen nintzen bertze batez -haurra nintzelarik orduan ere- Bergaratik heldua. Bi jaun ikusi nituen, buruz buru, itsas hegitik ibilki ta mintzo, Donibaneko jaun erretora zen batto (egungo jaun apezpiku Bellevue) eta bertzea... Donibaneko artzain protestantea omen! Nola hori? Ikus ta ezin sinetsi! Gure apez bat artzain protestantearekin ibil eta mintzo? Elizako dorrea, ezkila ta oroz, eroriko zen Bergaran horren ikustez! Ez nuen deus ere erran ez eta ere galdetu. Baina nahasi ninduen horrek ere. Nik ikasia nuenari jarraitzekotan, behar bainuen -Donibaneko jaun erretor saildu hari buruz- Eliza Amarengandik kanpo bizi ote zen pentsatu.

«Egiak ditu eskubideak oro; gezurrak ez», erraiten ziguten anitz aldiz gure etxerat meza eman, pittat musean ari edo iluntzean solas egiterat etortzen ziren apez lagun on haiek. Eta makila eskuan ukanen zuen beso gogorreko aitzindaria eskatuko zioten Jainkoari, Espainiako buruzagitzat. Jainkoaren etsaiak, suaz behar bazen, suaz zapalduko zituen gizona. Ezpataz behar baitzen -hitzez ez izatekotan- egia zabaldu ta

sartarazi. «Jainkoaren semeak ez zuen ba holakorik egin, ez eta irakatsi» errana diet noizbait. Baina Testamentu eta mende zaharretako Gerla Sainduen oroitzapenez ninduten ixilarazten. Eta behin baino gehiagotan -gaztesko nintzelarik- bai-eta zaflako eder batez ere. Nafarroako apezak horretan gogorrakoak ziren, haatik, Gipuzkoako apez zahar haiek baino: eta guk etxean izan genuen lehenbiziko eskola-emailea, horietako apez «karlista» nafar bat zelarik, txispa ta bihotza beti gertu zituen harek, mendirat gazteekin irten eta aitzinean emanen zitzaizkion Jainkoaren etsaiak oro bertze mundurat igortzeko laster. Baita, behar bazen, bera lehen-lehenik hiltzeko ere: gizon haren sinets eta bihotza, Nafarroa bera bezain handiak baitziren.

Baina baziren haatik, denbora haietako apezetan, karlista haiek baino barne-estu ta zorrotzagoak ere: integristengatik mintzo naiz. Jansenius izanaren semeak ez baziren ere, haren lehengusuak omen. Xuxenak haiek ere: bertzeei bezain gogor egiten baitzioten bere buruari. Baina... seigarren aginduari buruz behintzat, hatsa hartzea ere ez zen haientzat erraza bekatu egin edo eginarazi gabe. Leku orotan, deabruaren adarrak eta buztana ikusten zituztelarik,

munduko agintari eta gizon gehienak ziren haientzat deabruaren mutil. Emaztekiak areago, haatik. Oi emaztekiak!, gizonari bekatu eginarazteko sortuak! Zeruko atea hertsia-hertsia ziren haientzat, arras gutti baitziren katolikotasunean aski xuxenak; eta erraiten dutenez, maiz egiten omen zuten otoitz ere «por la conversión del Santo Padre» (Pour la conversion du Saint Père). Gipuzkoan indar pittat hartzen hasia zenean «integristakeria» hau, Alfonso XIIIgaren, Espainiako azken errege izana, behin Tolosarat heldu eta izen hori -«integrista» izen hori- lehen aldiz entzuna zuelarik herriko karlista bati zion galdetu: «¿Qué es eso de integrista?» Eta bertzeak erantzun: «Señor... Son los amigos íntimos de Nuestro Señor Jesucristo!» Ene zoriona! Haien artean bainauzue sor eta bizitua, apez nafar karlista bihotz handiko hura joan zelarik, bertze gipuzkoar apez «integrista» bat ekarri ziguten, eskola-emaile, etxerat. Hamar urte anitz egin zituen gurekin. Bizi da ta bizi bedi luzaroan. Gizon xuxenik bada, hura baitzen xuxen: guri bezain gogor bere buruari egiten ziona. Baina... Jainko maitea! Hamazazpi urterekin ere, ez zigun neska gazte bati begiralditxo bat ematen utziko. Gu neskatxa

batekin mintzo? Jainko maitea! Erranen dizuet hone-  
taz behin zer zitzaigun gertatu...

*1951*

# TURISTAK ETA USOAK

Euskalerria maite dutenentzat, udazkena omen sasoirik ederrena. Gure herriari buruz idatzi izan duten arrotzek ere, hemengo udazkenaren giroari egin izan dizkiote goraldirik handienak. Ikustekoa da Pierre Loti batek, esate baterako, zein ederki, entzun eta adierazia duen hego-haizearen mintzoa. Odol eta su dakarzkigula bere hegaletan, esango nuke, haize-hego horrek. Suaren kolore baitio gure Herriari ematen. Eta ez da, gurean, Andre Hegoa bezain etxekoandre presturik: ageri orduko baitigu, bere hatsaz, herri osoa garbituko, mendi ta etxe urrutienak ere sudurretaraino hurbilaraziko dizkigula: ez baita gure haize-hegoa bezain betaurreko azkarrik. Euskalerrriari lainojantzi arinak kendurik, narrutsik agerraraziko dizu hegoak haren gorputza, izkaturik gabe haren gogoia. Ta burutik nahasten ez bazaitu -«hegoa, emaztekieen eroa»- ez duzu, bihotz eta begietarako haize ederra-gorik!

Hegoarentzat itsua izana nauzue. Udazkenak baitzidan egizko barne-giro ekartzen. Orbela ta garo gorriak nituen nire barne-esnaleak. Eta supazterretik

-egunaren laburtzeak ituntzen ez ninduelarik, bai zera!- lehen elurraldiari begira xoraturikago egoten ninduzun, udaberriko sagar-lorearen lehertzeari begira baino.

Gaur berriz, hasi berria naiz udaberria maitatzen; haren minez, haren beharrez bizitzen. Hemengo udaberriaren ederrak ez ote nau azkenean bereganatu. Gaur ez da niretzat, Baxenabarreko Pesta-Berri bezalako egunik. Urte osoa zait haren nahia, haren beharra. Udazken eta neguko hego ta orbel, euri ta basa, laino, haize, elur eta supaztarreko gau luzeak baino, maiteago ditud orain Pesta-Berriko eguzki-dantza, belar-usain, lore, lur-emaiza ta kantak.

Gure herria, egia esan, Andaluziaren aldean euriontzia izanik ere, eguzki-herri alaia duzu gu baino iparralderagokoentzat. Honengatik nonbait diote egun hauetan *-diote*, diot- Ingalaterrako errege jaun eria eguzki-beharretan dela ta, Uztaritzeko gure adiskide batzuen jauregirat ekarriko ote duten. Eguzki beharretan norat eta... Uztaritzerat! (Jainko maitea!! Hauxe ez genuen orain arte entzun; beste guziak bai).

«Ave María Purísima! Pero qué triste y qué *mojaos* y qué requetesosos os ha hecho Dios a todos los *zirimiris* del Norte» esaten zigun maiz, gazte ginelarik,

Sevillako neskataxa polit zaratalari batek. Anberes-ko atso zahar bati berriz, hauxe diot hogei urte buruan entzuna: «Vous êtes basque, Monsieur? Vive le Midi!! Car c'est surtout vos imaginations méridionales que j'admire... et votre soleil... et votre fandango!»

Esan genezake beraz -apaltasunerako sortuak ez baikara- zernahitik eman geniezaiokeela, hemen nor-nahiri: nahiz laino, nahiz eguzki; Ingalaterrako Errege jaunaren epel-beharra betetzeko adina eguzki-izpi izatekotan, atzemanen baikenuke Marokko-ko Sultan jaunari eguzki-kolpearen ondorengoak sendatzeko behar adina «builarta», xirimiri ta laino ere.

Baina itzul gaitezen, berriro, udazken baitara. Lohiaz beteak daude inguru hauetako mendi-bideak. Gaur ere basan sartua zait hamaika aldiz belaunetaraino nire zaldia. Baserritarrak egun hauetan iratzetan dabilta, mendi bakartsu ta gorenetan ere. Ikustekoak dira horien estualdiak, egun osoa segaz ibili ondoren, iluntzean iratze-gurdikadak mendian behera dilindan dakarzkite, idi ta orgak lokatzen zaizkienean abastartzen. Baserrian ez baita, karrikan bezala, zortzi orduko lanaldiaren ondotik horkonpon-gisa bizitzerik izaten. Nekazariaren izerdi ta nekeak ez ditugu, haa-

tik, langilearenak bezain arduraz hartzen. Hauek errukigarriagoak, edo haiek ixilagoak direlako ote?

Mendian ez ditut, egun hauetan, nekazari hutsak aurkitzen. Badabiltza ehiztariak ere. Batzuk zakurra-  
ren atzetik izerditan arnasa ezin harturik; bertzeak,  
berriz, arbolaren punttan beren burua gorderik, txispa  
besotik dutela, usoren bat ageri artean «Le Sud-  
Ouest» edo «Herria» lasaiki irakurtzen. Zorro barnean  
ez dute, etxerakoan, zama handirik ekarriko baina,  
zangoetan bai lokatz ederrak. A ze xantza, emazteki  
mokolariarentzat!

Udan «turistak» etortzen zaizkigun bezala, udaz-  
kenarekin usoak zaizkigu Euskalerrirat heltzen. Arro-  
tzak hauek ere. Arrotzik apain eta dotoreenak. Hauek  
ez baitigute karrikan izerdi-usainik utziko. Ez-eta,  
mendietan, paper zikin eta sardina zaharrik ere. Ezta  
ere ohitura nabarmenik. Ikustekoa da usook -sailka,  
moltsoka- zein apain eta nagusiki igarotzen zaizkigun  
gaintetik. Hauek ez digute lurra ikutuko ere, hegalen  
itzalaz baizik. Baina ez balio: ordaindu behar izaten  
digute hauek ere -beste «turistek» oro bezalaxe- gure  
Herrirat hurbiltzen direnek ordaindu behar izaten  
dituzten zergak: berrogei mila usoetarik bat behintzat,  
gelditu behar izaten da gure Sara, Etxalar edo Aldude-

ko sareetan. Guk hura gero, saltsan gozatuz, kaxuelatik jan ahal izateko. (Udako beste turistekin ez gara oraindik horretan hasiak. Beste zernahi egiten diegu, baina hori ez. Poliki-poliki behar izaten baitira ohiturak sarrarazi)

Merkeago ateratzen zaie halere usoei, bertze gaixo udatiarrei baino, gure Herritik igarotzea. Berrogei mila usoetarik bat! eman behar izatea zer da ba? Udatiar gaixoez ez dute halako zori onik: denek behar izaten baitituzte, denek!, gure sakeletara beren sake-lak hustu. Ta halere, harrigarria duzue azken urte hauetan gertatzen ari dena: udaz urtetik urterat turista gehiago ta, udazkenez urtetik urterat uso gutxiago. Zergatik ote?

Datorren urtean, behar lukete saratarrek -halaxe errana diot Lerenburu osabari- proba bat egin: sareak izkututzen ibili beharrean, ageri-agerian ezarri. Eta gaineke txabolatik, dilindan, txartel handi bat eman, usoek irakur dezaten: «Ici on massacre des palombes!!» Hau irakurrita, abiatuko lirateke sareetara uso guziak. Udan ere, «La Chambre à 2.000 francs» kanpoan ezarria duten ostatuak baitira lehen-lehenik betetzen...

Eta ikusiko zenukete: saratarrak hola hasi ezkerro, beharko lukete Etxalar eta Aldudekoek ere segi. Usorik gabe geldituko bailirateke bestela.

*1951*

# BERGARAKO JAIK ETA LAPURDIKO LUSAGARRAK

Mendekoste Jaiak hurbiltzen ari direla, maiz eta biziago zait egun hauetan gure Bergara bururat etortzen. Mendekoste egunetan izaten baitira Bergarako jaiak. Gure etxe aurrean egiten zen (orain ere hola eginen, nik uste) hiru egunez dantza. Bertsotan erranak ditut («Urrundik. Egizko gertaera bat») pesta-egun batez goiko enparantza hartan gertatuak. Gurasoei entzuna diet: orain baino jai handiagoak egiten zirela Bergaran aspaldi. Baita ezkontza gehiago ere jaiaroetan. Herri batetik besterat oraingo joan-etorri erraztasunik ez baitzen, pesta-aitzakiok hauta behar izaten ziren, zenbait bergarar andereño politi... kanpotiar zalduntxo egokiren bat ezagutarazteko. Ta *minuetoa* ere abantxu Bergarako semea baita, haren soinu-laguntzaz egin izan dira gure herriko etxe zaharretan zenbait ezkontza eder.

Egia esan: ez zaizkit mendekoste jaiok inoiz atseginak izan. Azterketak hurbil izaten baikenituen. Eta liburu nazkagarri haiei azken orduko astinduak eman behar izaten zitzaizkiela, mendirat eroaten gintuen

gure apaiz irakasle harek Mendekoste egunetan anaia ta biok, dantza ta soinuari urrun liburu pixu haiek buruz ikastera. Ta zuhaizpe batean hirurok jarrita, geu aljebrari edo beste zozokeriaren bati lotuak egon behar izaten ginela, ikustekoa zen zein alai eta arin igarotzen zitzaizkigun ondotik baserritar gazteak dantzara. Barnea zitzaidan, haiei begira, egunarekin batean iluntzen. Eta horra: ezin izan dut geroztik oroitzapen hura enegandik uxa.

Alaiagoak ziren guretzat *San Pedro* ta *Samartzial* jaiak. Ez ziren, bata bestearen hurrengo egun biok, elkarren antzeko. Urtearen egunik handi ta dotoreena baikenuen *San Pedro* eguna. Alai eta zalapartariena berriz hurrengoa. Ikustekoa zen, hurrek ere Sanpedrotan hartzen zuten zeremoni itxura. Samartzialetan aldiz, zaharrak ere neska-mutiko bihurtzen. Eta zernahi zenuten egun hartan haizu. Lanetik etxerat eta etxetik elizarat egunero ibiltzen ziren gizonik ilun eta zuzenenak ere, berdin jaitsiko baitzitzaizkigun egun hartan iluntzearekin -mendian bazkari ta dantza egin ondotik- andere eder edo neskatxa ponpoxa baten besotik plazara.

Bergaratarrentzat, bi egun hauek dira bergatarrenak. Bi egun hauetan agertzen zaigu guri Bergararen

egiazko iduria: handiki itxurazkoa Sanpedrotan; eta Samartzialetan, aldiz, alaitasun eta umore onez betea. Nahi duzuen esatea duzue: Bergarak ez du Euskalerriko beste herriekin ere zerikusirik. Ez gara beharbada besteak baino hobek izango. Berezi ta guretarragoak bai ordea. Bizkaia eta Gipuzkoa arteko mugaren gain zankalatraba jarrita, ez baikintuzke inork ez baten ez bestearen semetzat hartuko. Eliza dotore, antzinako kale estu ta jauregi zahar haien itza-lean zenbait ola berri ere sortu direla, bergararren elkarganako anaigoak ez du arlotekeri usainik. Sorterriari dakarkiogun maitasunak biltzen bide gaitu elkarrekin. Eta gure arteko -aingeruak ez baikara- alderdikeria, grina ta gorrotoak leuntzen. Begira azken gudaldian gertatuari: bergaratarren artean ez da horrenbeste odol-hoben eta salaketarik ezagutu. Ez gaitezen harrotu, baina poztu gaitezen. Gaur ez baita -Bergaratik aldegin behar izan zutenetan- sorterrira lehenbailehen itzuli nahi ez lukeenik.

Gogoan dut -Bilbao galdurik, Bizkaia ta Santander arteko muga-mugan ginela- gure gudaldiko egunik beltzenetan zitzaiguna gerta. Dei egin zidan Agirre Lehendakariak iluntze batez. Garagarrilaren azken egunak ziren. Galduak genituen orduko, galtzekoak

oro. Gure buruen gain, hegazkinak su dario. Ta herriak osorik -zahar, emazteki, haur, behi, ardi ta abar- bide barna ihesi. Haiek egunak!

-Garrantziko erabaki bat hartu beharra dugu biok oraintxe -esan zidan Agirrek.

-Zer da ba?

-Espetxean ditugun bergaratarrek, gurekin gaur bertan hitz egin beharra dutela jakinarazi didate. Ekarrazazi ditut nire aurrera. Ta ba al dakizu zer zuten?

-Zer zuten?

-Bihar *San Pedro* dela ta... ea utziko ditugun Bergarara joaten.

Ezin izan nion irriari eutsi:

-Ta nola igorriko ditugu ba beste aldera?

-Igaroko omen dute nolabait su-muga mendiz. Eta horra egia: ez dut kemenik izan ezetz esateko.

Bihotzetik erantzun nion:

-Ondo egina. Doazela gure orde. Zuk eta nik ere zernahi emango genuke bihar han izateko. Sorterri-legiak hartu diezaiola gaina, behingoz, guda-legeari.

Eta irten ziren gure bergaratarrak iluntze hartan. Gauaz su-muga nolabait igaro ere. Ta, hurrengo goizean, garaiz heldu beren herrira. Garaiz diot: orduko hasiak bai omen ziren gure ezquila astun, eder, dotore

haiek -alkate-soinuarekin batean- Meza Nagusirako herritarrak biltzen...!

Gaur ez nituzke beharbada -gure etxe aurretik Eliza Nagusira doazela- herritar gehienok ezagutuko ere. Nik haur utziak, aita-amak baitira. Hasiak zaizkio, nire begitako Bergarari ere ileak zuritzen. Hamabost urte hauek ez baitira alferrik igaro. Ongi joanak bitez, geroari buruz zerbait erakutsi badigute. Sorterri-legeak gaina hartu behar baitio, gurean noizbait, guda-legeari.

Ta gaude -gauari gure baitan lekurik egiteke-egun-urratzeari begira. Beldur naiz haatik: Bergararat itzultzean -betor egun hori laster- bizi beharko ez ote garen gero Donibane-minez. Ameriketara joaten diren zenbait euskaldunena: han direla hona nahi, ta hemen direla hara behar. Hitz batez: bidean ondoen. Eta nik bidea ez ba maite. Zuhaitzarena baita nire zorion-legea ere: egonean egon.

Ari gara bai ohartzeke -gure Lapurdi zoragarri honetan ere- erroak egiten. Donibane Lohitzuneko inguruetan erosiak ditut larre-lurrak. Eta haiek lantzen ari. Goizetik iluntzerarte han gaituzue iraultzen, jorrazten, ereiten, landatzen. Eta hasiak gara zerbait bil-

tzen: lurraren emaitzak baitira barne-poza, haize garbita bakea ere.

Geroz eta urrunago zaizkit kaletarrak: hizkeraz eta izaeraz ere. Mendia bete-betean arnasten duenari, arrotz zaiola gero kale usaina. Baserritarrekin ohitua. *Soucoupe Volante* horietako batean Martetik heldu berriak iduri zaizkit jadaneko agertzen hasiak zaizkigun lehenbiziko turistak. Gure eguzkipean beren ipurdiak erretzerat etorriak omen. Preskatuko nituzke nik gogotik, euritako-iturrien jabe banintz. Aurtengo idortea honek egarri baitauzka lurrak, euri-zaparrada on bat behar. Zein gogotik irekiko nituzkeen nik euri-iturriok, jabetzat banindute; eta hol-hola irekiak utzi, gure lurrok ondo busti ta goxatu artean. Baina Jainko maitea! Ez ote nindukete turistek eta kaletarrek jango? Euri-iturrien jabe neu nintzela herrian zabaldu orduko, inguratuko lidakete etxea. Ta ate ta leiho guziak hautsi ta lurreratuz, sartuko litzaizkidake zalapartaka barnerat oihuka: «Qui est l'imbécile qui a déclenché cette averse? Où se cache-t-il le misérable? Prenons-le la main dans le robinet! Au poteau!! Au poteau!!» Eta zintzilizkatuko nindukete laster, iturriari berari soka lotuta. Gaixoa ni!!!

Ez, ez. Begoz Jainkoaren eskuetan euri-iturrietako giltzak ere. Etsai gehiegi bainituzke, nire eskuetan balegoz. Aurten ere, urtero bezala, elizatik irten eta kalez kale baserritar guziok euri-eske litaniak abestuz ibili izan ginelarik, beldurtzekoak ziren kaletarrek jartzzen zizkiguten gorroto-aurpegiak.

Turista pottolo galtzamotz batek bazterretik oihu:

-Mais voyons, pourquoi tant de chants, tant de prières?

Apal-apalki erantzun nion:

-On demande la pluie, monsieur.

-La pluie? La pluie?? -eta sutan- Viens Suzanne, on va voir tout de suite monsieur le Maire.

Enparantzatik entzuten ziren haren oihuak:

-Monsieur le Maire, je proteste. Peut-on permettre qu'on organise des prières pour la pluie, dans un pays de tourisme?

Joan den astean atereak ditut lehen lusagarrak. Lurrari neronek ekarrarazitako lehen emaitzak nituen. Ez dizuet aise azalduko nire bihotz-ikara. Iluntzea zen. Udaberri iluntze eder eta argienetakoa. Bakar-bakarrik nengoen nire ondasunean, Larrun mendiari buruz buru. Txorien kanta nuen lagun. Eman nien gure arto, maikola, mertxika, sagar eta madariei egunero-

ko azken begiraldia. Gelditu nintzen, gero, lusagarren aurrez aurre. Zein ederrak! Eta bakartasun hartan ene burua bakarrik ikusiz, erabaki nuen -beldurrez, dardaraz, hoben egiteko banengo bezala- lusagar-landare horietako batzuk lurretik ateratzea. Lehen aldia nuen. Nola egin? Atxeman nuen, hosto batzuen azpian, mutilak ondo izkutatua zuen atxurra. Hartu nuen hura eskuetan. Jarri nintzen egonean egon, hosto ferde ederrez beterik ongi jorratua ta lur goxoz inguratua ageri zen lusagar-landare baten aurrean. Eta bat-batez atxurra zeruetaraino altxaturik, sartu nion lurra-ri barne-barneraino haren burnia. Egin nion gero atxur-rrari tira... Ta, Jainko maitea...!, ez zitzaizkidan ba ene begien aurrean agertu -arrautzak oiloaren azpian ego-ten diren bezalaxe- hamalau egiazko lusagar eder landareari josita? Ezin sinetsi nuen egia zenik. Eta ger-tatu berria norbaiti lehenbailehen jakinarazi nahiz, hartu nituen ene lusagarrak txapelean. Baita abiatu laster etxera. Bidean atxemanikako baserritar lagun guziek ikutu ta miatu ta usaindu behar izan zituzten ene lusagarrak. «Politak dira», zioen Ganixek. «Euri pittat hartu bazuten!», esan zuen Mattinek. «Ez duzu larre-lurrak emana bezalako lusagarrik», ziharduen

Beñatek. Eta denek bazuten zer errana, bidean geldiarazten nituelarik.

Gau hartan -andrea ta biok buruz buru afaltzen-ekarri zizkiguten, bero-beroak, gure lusagarrok. Behar bezala errerik, urrezkoak iduri zuten. Urrezkoak iduri zitzaizkigun, guri behintzat. Ezkondu ezkeroztik ez baikenuen afari ederragorik egin.

Eta noski: nireagoa dut orain, Lapurdiko lurra ere!

*1952*

# ANGIOLILLO

Ez da Bergara, berez, herri alai eta pinpirin horietakoa. Harri beltzez eginikako herri dotore bezain goibela, laino ta ketan duzu noiznahi, bere zulo ilunean jarrita. Saihetsean zauritua dagoela iduri dizu, gauaz, bere labeetatik ateratako burni gorri hari begira jarri ezker. Bergarako zubietatik, huntzak errekarri agur.

Goiz hartan -1897garrengo Dagonillak 20- ez omen zenuten ba, gure herria, besteetan baino alaiago. Bihotz-apal, bihotz-estu zebiltzan bergararrak oro. Zenbait etxetako ate aitzinetan, emazteki mordoak txurtxurka. Gure goiko plaza hartatik igaro beharra zutenek ere, presotegiari begiratuko zioten, egun haietan, zeharka. Entzuten baitziren, kanpotik ere, espetxe barneko mailuketak: zurginak ari, kartzela barneko patioan, urkatokia antolatzen Santa Agedatik -hamabi egun lehenago- eskuak loturik ekarria zuten gizon gazte arrotz, polit harentzat: Angiolillo. Hura ezagutua duten bergararrek hala baitiote: gizon atsegin, goxo ta eskolatua zela. Elizakoak eskaintzera joan zitzaion apaiza ere, biziki ongi hartu omen zuen. Baina ez zen, gero, italiar anarkista itsu hura zalantzetan

ibili: zeharo ukatu zizkion apaizari Elizakoak. Urkatokira iristean ere, hauxe izan zen haren azken hitza: «Germinal!» Inguruan zituen gudariak, aldiz -gizona urkatzen ikusteko bihotzik gabe- bizkarra eman eta beste aldera begiratu behar izan zuten azken orduan. (Rafael Sasillas-ek argitara emanak dituen egun hartako argazkietan, ongi asko ikus litekeen bezala). Bergararak oro gelditu zitzaizkigun, egun hartan, bihotzikaratuak. Orain ere, gutxi izango dituzu, Angiolillorenak hamaika aldiz, etxean edo, entzun izan gabeko bergararak. Espainiar bati ere, nongoa naizen aipatu ezkerro, laster entzun behar izaten diot: «Con que de *Vergara!* La villa del *Abrazo!* *Hermoso Santo Cristo* el de ustedes. Y qué bizcochos *Rellenos!* En Vergara se ahorcó a *Angiolillo*, el asesino de Cánovas!»: Bergarak arrotzarentzat lau ezaubideok baititu.

Leku atsegina omen zitzaion, Cánovas del Castillo zenari, gure Bergara ondoko Santa Ageda. Izen honek izitzen gaituela gaur, eta nola. Ganbaratik nahasten hasia ote zaren bai edo ez, ingurukoei iduritu ezkerro, aide: laster baztertuko baitzaituzte harat. Baina orduan ez zen han erotegirik. Izen handikoak ziren, Santa Agedako urak. Eta harat etorria zen, uda hartan ere, Cánovas bere emaztearekin: doña Joaquina de

Osma -Vistafloridanekoa- emazteki eder, aberats eta aitorralaba; bere senarra baino hogeita hamar urtez gazteagoa. Hirurogeita bederatzi baitzituen, orduko espainiar Agintaritzako lehendakariak.

«Esta Santa Agueda me da la vida», esaten omen zuen Cánovasek noiznahi. Eta goizetik urak hartuta, arratsalde oroz irtengo zitzaizkigun senar-emazteak, zaldi-orgaz, inguruko herriren batera: Bergararat edo, Oñatirat edo, Arrasate nahiz Eskoriatzarat. Herri haue-tako jauregi zaharrak maite baitzituzten asko. Gure gurasoak ere, uda hartan Santa Agedako urak hartzen izaki-eta, haiei entzuna diet: Cánovas eta bere emaz-tea nola bakarrik ibiltzen ziren beti, zaindaririk haren inguru inoiz ageri ez zela. Ez ziren, ez, oso erne ibili zaindariok, ez baitzioten, urak edan-itxuretan zebilen italiar bitxi hari, batere susmorik hartu. Baina, noiz eta nola etorria zen ordea, Angiolillo Santa Agedarat?

Bazen Madrilen, denbora hartan, asteroko anarkis-ta-edo ezkertiar amorratu bat: *El Motín*. Eta José Nakens esaten zioten, haren zuzendariari. Heldu zitzaion honi, uztailaren erditsuetan, gau batez Angio-lillo. Gezurrezko izen batekin: Rinaldini. Eta berriketal-di goxoa elkarrekin egin izan ondoren, aitortu zion honek azkenean: «Cánovas edo Erregea bera hiltzeko

asmoz etorria naiz Madrilerat». Horra, geroxeago argitaratutako artikulu batean, Nakens nola saiatuko zaizun bere burua garbitzen: «Me sonreí. (Angiolillok egin zion aitormena entzunik). He oído decir a tantos algo parecido. Si cada uno que me lo ha dicho, y no anarquista precisamente, lo hubiere hecho, habría yo visto lo menos cincuenta o sesenta Reyes nuevos y quinientos o seiscientos presidentes del Consejo de Ministros. Hay muchos aficionados a sacrificarse verbalmente por su ideal. 'Y qué adelantaría usted con eso?', le pregunté. 'Vengar a los de Montjuich', me contestó. Volví a sonreírme, le alargué la mano y se marchó.»

Uztailaren 23an heldu ziren, Cánovas eta bere andrea, Donostiarat. Handik gero Santa Agedarako asmotan. Londres hotelean ostalaratu ziren, Donostia, orduko, uda betean aurkitzen zelarik: Errege-Erregina ama-emeak Miramar jauregiat etorriak; Kasinoa ere bere egunik ederrenetan noski; ostatu ta etxerik apainenak, Madriletik heldutako politiko ta handikiz beteak. Kubatik hartzen ziren berriek, ordea, ez zioten Cánovas buruzagiari, pesta-gogo handirik ekarriko. Berri-emaileak deitu zituen egun haietan Donostian, eta hauxe esan: «Aunque se concediese a la isla de Cuba una autonomía análoga a la del Canadá por

Inglaterra, no por eso dejaría de haber en la Gran Antilla pequeños grupos que asaltarán los fuertes y volarán los trenes, porque la insurrección filibustera tiene carácter separatista». Ez da harritzekoa: «Guerra separatista» esaten baitzion Cánovasek, Euskalerriko karlatarrenari ere. Bartzelonan gertatu berriak ere aipatu zituen Cánovasek Donostian. Esanaz: «Anarkistek sortu berria duten matxinada horretan, hil edo zaurituak izan dira 105 hiritar; guk aldiz, horren ondotik, ez ditugu bost anarkista besterik urkatu. Biguinak izan gara, beraz». Baina Espainian, eta Espainiatik kanpo ere, baziren barkatuko ez ziotenak. Itzul gaitezten, beraz, harira.

Londres hoteleko bere gelan zegoen Cánovas iluntze batez, bakar-bakarrik, begiak itxirik eta etzanda, atsedean pixkat hartzen. Iduritu zitzaion halako batez, atea zabaldu ta norbait gela barnean sartu zitzaiola. «Quién es?» egin zuen oihu. Eta, oihuaren ondotik, itzal bat-edo ikusi ere ihesean. Ez zion Cánovasek, gertatuari, garrantzirik eman. Baina haren andrea artean -hotel ondoko *Benquet* liburutegian- erosketak egiten ari zela, sartu zen denda barnera, zalapartaka, gizon bat. Aitzakia asmatu ta irten omen zen lasterka berriz. Ez zion Cánovasen andreak ere, gertatuari axo-

larik egin. Gero, ordea, hiltzaileak berak aitortu: Cánovasen gelan nola sartu zen eta, harek egindako oihuaz zaindariak erretuko ote ziren beldur, hoteletik antxintxiketari irtenik, bere burua izkutatzeko asmoz ondoko liburutegi batean nola sartu zen. Espainiako buruzagiaren atzetik ibili zen beraz Angiolillo, Donostian. Ta hura Santa Agedarat abiatu orduko, harako bidea hartu zuen hiltzaileak ere, ur-aitzakiz. Denbora hartako ertzainen begi erna! Beren buruak hobekixago zainduak ote dituzten nago, gure egunetako jauntxoek.

Sei egun egin zituen Cánovasek Donostian. Uztailaren 30ean heldu ziren senar-emazteak Santa Agedara. Zoraturik omen zegoen Cánovas bakeleku hartan. Afal ondoren eta, badu norekin berriketa egin ere. Hantxe baitagoz Madrileko bere zenbait lagun: Esquilache ta Revilla de la Cañadaneko markesa andreak, Zayas buruzagi zenaren alarguna, Aldamaneko kondea ta abar. Kuba ta Filipinetako gora-beherak dituzte, gauero, ahoan. Baita Bartzelonan anarkistek ateratako zalaparta ere. Bilbotik etorria da egun haietan Santa Agedara, nonahi irabazpide ta langai berriak orduko sortuak zituen bizkaitar hura: Bitor Txabarri. Eta atsegin omen zitzaion Cánovasi, bere irten-aldie-

tan eta, bidean atxematen zituen baserritarrekin zer-  
bait hitz egitea. Espainiako buruzagiaren joan-etorri ta  
ohiturak, ongi ikusiak zituen bai Angiolillok. Hamaika  
aldiz eskuratu zitzaion honi, Cánovasi hurbil-hurbiletik  
tiroa jaurtitzeko aukera. Baina kezka batek egiten  
omen zion atzeraka: haren inguruko beste norbait,  
tiroaz, zaurituko ote zuen beldurra. Txispa eskuan  
eduki omen zuen bi aldiz, Cánovasi jaurtitzeko: Gara-  
gartza aldapa ondoko arbola baten atzetik behin; bes-  
tean berriz Arrasate herriko sarreran. Baina orduan  
ere, zaldi-organ, Cánovasek andrea alboan izaki eta,  
hiltzaileak ez nahi honi kalte egiterik. Dagonillaren  
8ak ekarri zion, azkenean, Angiolillori aukera.

Igande zen. Gelaratuak ziren Cánovas jaun-  
andreak, Mezatik itzulita. Irten ziren, eguerdiz, janto-  
kirako asmotan. Eta andrea bere ezagun batekin gel-  
ditu zelarik Cánovas jarri zen galeriako aulki batean,  
bakar-bakarrik, eguneroko bat eskuetan hartu ta ira-  
kurtzen. Ez zebilkion hiltzailea urruti. Cánovas nola  
bakarrik zegoen ikusita, igo zen bestea antxintxiketan  
bere gelara, pistola bila. Zapatak kenduta jantzi zituen  
espartinak, ixilago ibiltzeagatik. Hurbildu zitzaion,  
emeki-emeki, Cánovasi, ta jaurti zizkion hiru tiro. Odo-  
letan lurrean etzanda gelditu zen, Espainiako buruza-

gia. Tiroak entzunik, jaitsi zen andrea antxintxiketean: eta senarra itxura hartan ikusita, esan zizkion, eroturik, hiltzaileari egundainokoak. Hotz-hotzean erantzun zion besteak: «A usted la respeto, porque es una señora honrada; pero yo he cumplido con mi deber y estoy tranquilo: he vengado a mis amigos de Montjuich». Ordubete barru hil zen Cánovas, ezaguerarik gabe, azken Olio-Santua hartu izanik. Izugarriak izan omen ziren, andrearen oinaze-agiriak. Hara, orduko idazle batek dioena: «No lo podemos ver -Cánovasen gorputzagatik dio-: su esposa se ha abrazado al cadáver y lo cubre con su cara, con sus brazos, con su cuerpo. Aquel dolor causa espanto. Son la muerte y la locura que se dan un beso». (Garai hartako idazkera.)

Bazter guziak ukitu ta ikaratu zituen, Santa Agedan gertatutako zorigaitz honek. Aho guzietan zebilen, Europan barna, gure Gipuzkoako herriska horren izena. Ingalaterra ta Frantziako Agintaritzek jakinarazi baitzioten Cánovasi -honek anarkisten aurka hartuak zituen neurriengatik- beren gaizki-ikusia. Lehen egunetako zalaparta hartan, izan ziren esaten zutenak ere, Kubako abertzaleen aginduz Angiolillok hil ote zuen Cánovas. Ez dut uste ordea -Cánovas gure gaitzegile amorratuena izanagatik- euskaldunei hogen-

eman zienik inork. Gizona bizkarretik hiltzen ikasiak ez garela, orok baitakite.

Cánovas erregezalerik handienari gertatu berria jakin orduko, negarrak gaina hartuta, lehen-lehenik Santa Agedarat etorri zena ba al dakizue nor izan zen? Don Emilio Castelar, erkalzalerik goitiarrena. Oinazearen mendean omen zen heldu. Ta, hilari hurbilduz, Donoso Cortés zenaren ahotik ikasiok esan omen zituen oihuka: «Sócrates no fue tan grande por la vida que vivió como por la muerte que le dieron... El mundo se hubiera indignado contra Roma si hubiera permitido Roma que César muriese de la muerte de los demás hombres...» eta halakoak. Egia esan: Santa Agedan esateko, ez deritzaizkit gaizki erranak...

Uztailaren 10ean eraman zuten gorputza Zumarragaraino. Handik gero Madrilerat trenez baitzuten eroango. Horra Lemaneko markesak nola emana digun, Santa Agedatik Zumarragarainoko ibilaldi haren berri: «Delante, en el testero, apoyada la cabeza sobre el hombro del marqués del Busto, la faz mármorea de doña Joaquina de Osma, desmayada, y enfrente de ella, cubierto con un pañuelo blanco que le atenuaba los rayos del sol, el celeberrino orador y

hombre político don Emilio Castelar. Seguían luego muchos carruajes...»

Santa Agedatik irten berriak ziren gure gurasoak, berri ikaragarri hura Bergararat heldu zenean. Hunkitu ziren zeharo. Egunero ikusia baitzuten Cánovas, heriotzak atxeman zuen aulki hartantxe jarrita. Bergaratik alde egitea erabaki zuten kusian. Aita zenak ez baitzuen, bere etxe aurrean gizona urkatzen ikusi nahi. Segurarat ihes egin zuten, Lardizabaldarren etxera. Ez zen jauregi zahar hartako nagusia -Lardizabal eta Altunaneko Iñigo jauna- ez zela diot, Cánovasen lagun handia. Bihotzean baitzeramazkien harek ere, Cánovasek Euskalerrinari eginak. Eta gure gurasoek zekarzkioten berriak entzun ondoren, zabaldu omen zuen mahai gainean Euskalerriko mapa bat. Eta Santa Ageda behatzarekin ikutuz: «Ikusazue -esan omen zuen- Cánovasek heriotza non atxemana dizuen: urkatu nahi izan dituen Gipuzkoa, Bizkaia ta Araba hiru ahizpen erdi-erdi-erdian».

Seguran zeudela jakin zuten gure gurasoek, Angiolillo Bergaran nola urkatua zuten. Hantxe dago ehortzia ere: kanposantu ondoan. «Infernuko atea» esaten genion guk gaztetan, leku hartara sartzeko igaro behar zen ate gorriari. Beste gorputz bat ere

bazen leku hartantxe lurperatua: Osoro zenarena. Honek bere aita hil eta, Bergaran urkatu zuten gero, Santa Marina ondoko zubian. Elgoibarren sortua izan Osoro hori, Eibarren hazia izanagatik. Halaxe dio, hari eginikako kanta zaharrak:

*Elgoibarren jaio, Eibarren hazia*  
*Gogoan eukiko dau hil honen zortzia...*  
(urkatu zuten egunagatik dio).

Osoro ta Angiolilloren ondoan ehortziak dagoz egun, guda-aroan Bergaran hil ziren moruen gorputzak. Afrikan sor eta Bergaran ehortzi? Badira Bergaran sor eta Afrikan ehortziak ere! Zer nahi duzu. «Hamaika ikusteko jaio ginen eta», Bergaran esaten den bezala.

1952

# BEÑAT ELIZANBURU

-Jakin duzu, jauna?

-Zer.

-Beñat Elizanburu txoferrari gertatua?

-Zer zaio ba gertatu?

-Bart arratsean, Biriaturtik heldu zela Azkainerat, arbola jo ta xehatu omen du bere tarranta zahar hura. Bai omen ditu zazpi hezur-edo hautsiak ere. Gaixo Beñat, zortzi haurrideren aita-familiakoa!

-Nola zaio gertatu?

-Horra: ilundua zen, orduko. Aise ta ongi heldu omen zen, patarra behetik, bere bi argiekin. Halako batean, tiaka, arbola handi bat omen zitzaion bide erdirat etorri. Zapla! Hura jo ta biak egin omen ditu batean: arbola bota ta automobila xehatu. Eskerrak, jauna, bakarrik heldu zela. Barneko haiek... Mattin eta, Pettan eta, Xalbat eta... (ixil-ixilik belarrira) gaueko lanean utziak baitzituen nonbaiten.

-Gaixo Beñat!

-Ongi gaixoa ere. Hezurrenari ez zaiola sobera kasu egin behar. Horiek antolatuko omen zaizkio, poli-ki-poliki, egonean. Bertzea du gaixto.

-Zer du ba bertzea?

-Izialdi hartan odola mobi, ta barneko urak omen zaizkio haizeekin nahasi. Haiek gero odolarekin bat eginik bururat jo ezker... akabo gizona! Izerdia ere ez baitu askotan nahi bezain laster heltzen. Jainko-txikiak hola errana dio egun Gaxuxari: hezurrei lotu baino lehen, borrokan hasiak diren barneko haiei behar zaie-la errespetu pixkat sartu. Hartarako ez omen duzu, ilargiaren beherapenarekin egositako arno beroa bezalakorik. Harekin ari zaizkio.

-Etixerat ekarria dute?

-Egun goizean, bai jauna.

-Bon. Joanen naiz sarri haren ikusterat.

Eta izatua naiz, atzo bertan. Beti bezain potolo, piper gorria baino gorriago zegoen Beñat gaixoa, bere izara zurietan:

-Zer duzu Beñat?

-Arbola zikin hura...!

-Non duzu min, gaixoa?

-Behatz handian ez: arbola barnean utzia baitut.

Bertze nonahi.

Eta hatsa ezin harturik, gorputz guziko minetan zegoen gure gizona; andreak tarteka ekartzen zion

arno bero hartarik edan orduko, arbola zikin hari zer-nahi erranka lotzen zitzaioa.

Ixilik alde egitea nuen onena. Belarri ondolik egin nion agur. Harek niri, agur gisa, begi bat keinatu. Gaxuxa, haren andreak, ate ondoraino lagundu ta esan zidan:

-Haize gaiztoaren bat nausitu zaio. Ez zaio barkatu behar. Hari gaina hartu orduko salbo da. Hezurak arrimatuko dizkiote bai, gero ere. Zaharren errana baita: «Hezurak hezur, barneko haizeari beldur». Ta errazu jauna: autoaren puskek, norik arrimatu behar dizkigu guri? Handik heldu baitzen gure bizibidea. Gaixo gu, orain ere! Beharraren eskutik, mixeriaren besoetarat».

Beñat Elizanburu, nik orain aipatu honek, ez du beste Elizanburu olerkari handi harekin zerikusirik. Lodiegia, gizenegia, txikiegia, gorriegia duzue gure Beñat, olerkari batekin urrundiko ahaidetasunik ere izateko. Ostatuan, ilundu ta gero emanen dizkigu urtean behinka zenbait bertso. Baina ez besterik. Bertsoak ez baitu eltzekaria gizentzen. Eta etxean mahaia luze ta jatekoa labur. Gaixo Beñat: Azkainen sortua, apaiz-mutil egondua, Sararat ezkondua, zortzi haur munduratua, laborantzan saiatua, Ainhoan bizi-

tua, ostatuz jabetua (eros orduko saldua), gisako bezain nahasia, gau-lanean ibilia, zernahi hasi ta utzia. Lohitzunerat etorria, lehenik zaldilaria, gero txofer ikasia... Honen autorat igo baino lehen, egizak *Ave Maria!*

Ez dakit noizkoa den -noizkoa ote?- Beñatek ibiltzen duen tarranta zahar, handi, zabal, lodi, pixu, animala hura. Harek ez turutarik behar: bidekoak iziarazteko, nahiko ta gehiegi baita tarrantak berak ateratzen duen zarata ta burrunba hura. Haren barnerat igotzeko, maitasun handiagoa behar zaiola Beñati norbere buruari baino. Ta halere, ez duzue gure Beñat inoiz lanik gabe atxemanen. Saran ezkontza dela edo Ezpeletan merkatu, Urruñan hiletak edo Senperen bataioa, ez duzu Lapurdin gure Beñat gabeko jaialdi nahiz zeremoniarik, zortzi ta hamar egun aurretik nondinor nahiko eskeak izaten dituela. Gauaz ere ez dira beti lasaiak izaten Elizanburu jaun-andereen loaldiak: apaiz behar dela edo midiku, pestarako izaki nahiz gau-lanerako, Gaxuxa ohitua duzue senarraren alboetik noiznahi jaiki behar izaten, ohe epel izerditu hura utzirik. Eta leihoa ireki behar: kaletik oihuka ari zaizkienei erantzuteko. Gero berriz, senarrari hurbilduz, esango dio eztiki-etztiki: «Mobi zaite Beñat gaixoa;

badugu orain ere jaiki beharra». Ta halere, nahasiak baitira, zorretan bizi behar beti gaixook. Beñatek bere tarrantari noiznahi ematen dizkion kaskakoak antolatzeko ere, aski sosik gabe. Ate ondoan emana du txartel txiki bat zintzilik: «Beñat Elizanburu. Txoferra. Kilometra bakotxa: egunez 50 libera. Gauaz 100. Gauaz eta mozkorrekin 200».

Eskualerri osoa ibiltzen du gure Beñatek bere tarranta barnean. Egun Mayi: jantzi zuriz, eskuetan lore, aitaren ondoan jarririk elizarat doala. Atzo berriz Garaziren alaba zekarren bataiatzera, izeba mutxurdinaren besoetan. Arbola bezain tente, pestaburu-jantziarekin, alboan aitatxi zaharra zutela. Bihar beharbada, Ezpeletan merkatu, baserritarrez betea ibiliko du tarranta. Zazpi gizon eder, beltzez jantzirik, zekarzkiek joan den ostegunean Urruñarat: Iñazio zenaren hiletako esperantzetan. Eta ostiralean berriz, odoletan eta oihuka, Biriaturko harrobian zauritutako langile gazte bat, Uztaritze ondoko Jainko-txikiarengana. Etzi, beharbada, kantari ekarriko ditu, Saran afari polita agindua duten besteok. Eta kasu gero: noiznahi arkituko duzu-eta Beñaten beribila, bideskaren baten alboan gauaz gelditua. Ez duzu handik muga urruti izango. Ez-eta mandook. Mando zikinok. Dagoeneko, gauardi, beste aldean behar zutenok. To! Heldu dira.

Adi, adi -gau ilunean- mandoen urrats eta gizonen txistuok. Tira Beñat, irten errekatik eta eman mando haiei azken esku-kolpea! Hola, hola. Akabo! Igaro dute muga. Ez da goizegi. laupa! Jadaneko beste aldean dira-ta...

Gero biderdian:

-Pardon, Monsieur Elizanburu, vous rentrez à Saint-Jean-de-Luz?

-Boui, boui; bou poubez monter boui si bou boulez. (Bien artean lau mustatxa ttenttedun bi mugazainei).

-Merci (haiek, tarranta barnerat igotzean).

-De quoi merci? Il faut bien elkar lagundu boui dans la bie.

Senda zaitezela laster Beñat, arlote eder, Lapurdiko seme! Zure sendatze hori -bidetik ibiltzen diren haur, emazteki, gizon, oilasko, zerri, ardi, behi, zakur eta bertze bizidun denentzat arrisku izigarria izanik ere. Nahikoa lukete hauek -zure tarrantaren arrabots eta zaratak urrundik aditzean- mendirat-edo, teilaturat-edo, kanpandorrerat-edo... norabait alde egin. Inork ez baitu erraten ahal ixil-ixilik, uste-ezean, agertzen zarenik.

# LURRAREN MINTZOA

Jaun eskolatu batek -izikorregia nik uste- hauxe idatzi ez dit ba: «Aunque yo no comprendo desgraciadamente el vascuence, un amigo ha tenido la bondad de traducirme su último artículo «Sagar-lore. Kirkir. Kuku ta Pastualak». Me han parecido de interés algunas de sus observaciones sobre el teatro vasco antiguo y moderno. Pero he creído observar a través de todo el artículo un cierto tufillo panteísta...».

Panteísta? Zer duk hori? Hitz handi harrook: Panteísmo-ta, Parlamentarismo-ta, Existencialismo-ta horiek izitu egiten naute ni. Izitu ta nahasi zeharo. Ez baititut aditzen. Ez baitiet itxurarik hartzen. Beñat Larratxe nor den galdetzen badidazu, erantzungo dizut kusian: hauxe. Baina *Panteísmo* nor edo zer den galdezka etorri ezker, «ez dakit» erantzun beharko dizut: ez baitut behin ere ikusia. Holako hitz handi gutxiago balira, ez lirateke beharbada gizonen artean horrenbeste denboragaltze ta borroka ibiliko.

Lurraren emanak euskaraz zaizkidala mintzo erra-na baitut. Horrek ene laguna izitu. Baina gizona: Jainkoaren mintzoa duzu lurraren mintzoa ere. Lurraren

mintzoa otoitza duzu. Jainkoak ezarritako Lege-bete-tzea baino otoitz ederragorik ez bada, porru-ta gari-ta artoen urteroko sortze hura ere otoitza. Zer ba. Espainiako elizetan noizbait entzun izan diren gorroto-hitz batzuk baino ederragoa ez ote zaio Jainkoari, menditontoretik errotara datorren erreka garbi haren kanta? Iguzkiak horitutako gari-soro hura ere ez al zaizu mintzatzen, etxeko ogiari buruz? Gari-soro beltzaran hauxe duzu ba, Jainko-semblearen gorputz-gaia.

Bakoitzari bere hizkeraz egiten diola lurrak, egia hutsa. Guri euskaraz noski. Fray Luis de Leon olerkari-rik handienari, gazteleraz egiten zion bezala. Salamanca inguruetako lur latz haien mintzo ederra: «Del monte en la ladera / De mi mano plantado tengo un huerto / Que por la primavera...» Gure Elizanburuk ez zuen segurki, Salamanca inguruetako lur soil haien hizketa adituko. Ez-eta Fray Luis de Leon zenak Versaillesko oihanetakoa. Garcia Lorca zenak adituko ote zuen, Sara inguruetako artalor haien mintzaira?

Etxe, ontasun, baserri bakoitzeko lurrek ere badutela beren hizkera. Beren hizkera berezia. Norbere baratzakoarena duk eder. Lurrarekin gizonak bat egiten dizunean, gizona lurrari bezain beharrezkoa izaten baitzaio bere lur hura gizonari. Eta elkarrengandik

urrun ezin etsi, ezin bizi, ezin egon. Lurrarenganako maitasunik gabe, ez da niretzat egiazko abertzaletasunik. Hamaika gizon handi baino barneagotik eta barneago mintzo zait niri -ene Herriaren izenean- nik ongi dakidan oihan azpiko iturriño hura. Lurrarekin hartu-emanik gabe ez da egiazko gizontasunik ere. Itsaso nahiz lurrarengandik bizitzeko sortua baita gizona berez. Unamunok dioena: «La civilización la han inventado los hombres por no hacer una de estas tres cosas: labrar, pescar o cazar». Itsasoa harrotua dagoelarik, noiznahi ikusiko dituzu arrantzaleak, egon ta egon, lehorretik beren itsasoari begira. Baita nekezariak ere beren lurrari so. Baina kaletar langileok ikusi izan al dituzue inoiz, hiri nagusietan eta, beren ola handi ilun haiei amodioz begira? Maitasunik gabeko lan hura ez al duk gizontasunaren etsai?

Badirela gure lurretan ere, esango didazue, euskaraz mintzo ez diren zuhaitz eta barazkiak. Egia hutsa. Horra pinuok. Pinu ganorabakoak. Negu ta uda uniforme berarekin, gure mendietan goardia zibilak bezala dagozenok. Gure gazte denboran ez zen -Gipuzkoa alde hartan- pinu askorik ikusten, Oñatiko bidean edo, horietakoren bat topatzen banuen, hari doi-doia *bue-*

*nas tardes* esanda, laster jarraitzen nion bideari. Holarakoekin hobe baita berriketa gutxi ibili.

Haritz eta Pago izan ditut nire haurtzarotiko lagun handienak. Baita Gaztainondo ere, Euskalerrian bizi zela. Igorri baitzuten hau ere handik, geu bezalaxe. Orain ere, nonahi atxematen dudalarik, egiten ditugu, euskaraz beti, berriketa luzeak. Harentzat ez da *falangistarik*. Hura pinuengatik ibiltzen da zernahi esanka: «Ikusiko dute, pinu zikinok, zu itzultzean. Egun hura ere laster etorriko baita». Erantzun behar izan nion lehengoan: «Hago ixilik Gaztainondo zozoa. Gu ere halakoak esaten gabilta-eta, hamazazpi urte hauetan!»

Alboekin (platanuekin) eginak ditut, hemen Lapurdin, berriketa batzuk. Erdaraz gehienetan. Itsasertze-kook behintzat erdaldunak baitira. Edozein hiztegitan irakur daiteke: *Platane. Arbre du Pays Basque au service du tourisme* p.e. «Hôtel Maitagarria, tout confort, terrasse sous les platanes». Alboen azpirat igortzen zion Lotik bere Ramuntxo Gaxuxari. Eta horra: Pariseko eguneroko batean ere irakurria dut hauxe: «Le soir sur la Côte Basque, c'est sous les platanes qu'on récite l'Angélus, qu'on danse le fandango, qu'on cache la contrebande (!!!)» Lapurdi ta Baxenabarreko herrie-

tan badira haatik, etxe-aitzinetan eta, *Zerbitzarik* bezain ederki euskaraz egiten duten albo itzal-emaile politak. Alboa Lapurdiko. Haritza bizkaitar.

Sagarrondok bezain euskara ederra egiten duenik, ez da Euskalerrian. Oraindik badira, erdaraz hitzik ikasia ez duten sagarrondo zaharrak. Orain landatzen dituztenak-eta, kanpoko eskoletan ibiliak dira gehienak. Baina laster hartzen dute hauek ere berriz gure lur-usaina. Eta egia diotsuet: ez da niretzat sagarusain gabeko egiazko Euskalerririk. Udareagatik zer diodan? Mertzika ta horiek baino guretarragoa da bai udarea. Baina ez sagarra bezain herrikoia. Baserrijatorretan, sagarra eskainiko dizute orain ere. Herrietako jauntxo, midiku, mutxurdin, aberats eta apaiz batzuen ale-baratza polit horietan atxemanen dituzue orain ere udarerik ederrenak. Badakite bai hauek euskaraz zuk bezain ederki egiten baina, erdaraz nahiago gehienetan. Handinahikeria pixkat sartua baitzaie udareei. Ez da harritzekoa. Merkatuetan-eta garesti saltzen direla-

-ta, euskaraz egiteko lotsatzen hasiak. Marrubiari ere gertatzen zaiona. Ez gereziari ordea. Gure gerezi ederrok ez baitira, gorrienak ere, euskaraz egiten aise lotsatuko. Topa zuei, Gerezi ta Sagar!

Porru gaixoa ere. Bururatuko al litzaizuke zuri, gure Herrian porruari erdaraz egitea? Horretan argi esan beharra dago: artoa ta porrua bezalako euskaldun garbirik, gutxi. Oso gutxi. Hor egoten dira porru gaixook, gure baratzetan, tomateekin-eta ezin elkar adituz. Hauek ez baitakite -ez-eta ikasi nahi ere- tutik euskaraz. Horretan gure serorak baino okerragoak ditut tomateok. Ikusten da bai, *gorriak* direla. Aspalditik jakina baita: gorrietan, gereziak eta Eibarko sozialistak omen euskaltzale bakarrak.

1953

# BELAR ORGA LOKATZETAN

Zertan gara? Nora goaz? Zer ari gara, jaunak? Sar gaitezen gure baitan. Eta jarri. Eta egon. Etxe barneko giroari ez baitzaio beldur izan behar.

Leiho gabeko etxeak ez direla alaiak izaten? Tarketa begiratu behar dela kanporat ere? Bai. Baina niri behintzat sutondoan biltzen ikasiak diren sendi jatorrak zaizkit eder. Ez beti auzoari begira egoten diren mutxurdin leihozaleak.

Gure baitan bagaude, gure baitaz ariko gara ere. Eta horixe behar genuke euskaldun abertzaleok; gurean egon eta guretik ari. Bestela, leiho ondoan jarrita bizi behar bagara beti, auzoak bai jorratuko ditugu ongi baina... etxeko artoak ez.

«Estos franquistas! Estos monárquicos!! Estos ingleses!!! Estos americanos!!! y qué me dice Vd. de Moscú? Y dónde me deja Vd. el Vaticano? Bueno, no hablemos del Clero. Dónde está la solidaridad internacional socialista? Y qué me dice de la incongruencia de las llamadas Democracias? El mundo ha perdido todo decoro. Y toda lógica. Y toda vergüenza. 'Estoy escribiendo un documento -esaten zidan lehengoan

gizon txiki batek- en que *pongo verde* a la Humanidad'. Asómese. Siéntese aquí, al lado de la ventana y mire lo que están haciendo los vecinos. Es un escándalo».

Eta hola hogeï urtez... ixildu gabe.

Belar-gurdi bat ekartzeko asmoz ateratuak ginen etxetik. Eta horra: gurdia basan sartu. Gaua etorri zitzaigun eta, idiketara joan beharrean, hasi ginen predikatzen: bide hobeak behar omen ziren munduan egin! Hogeï urte igaroak dira geroztik. Bideak ez dituzte antolatu. Eta gure belar-gurdia hantxe dago beti: lokatzetan sartua.

Borondate oneko xaxiletradu batzuk hurbildu izan zaizkigu tarteka. Baina gurdiari begira jarririk, esku-kolpe bat eman beharrean, predikatzen hasi haiek ere: «Guk agintzean, antolatuko ditugu behar bezala munduko bideak oro. Eta ez zaizue orduan gurdia basan sartuko. Zatozte beraz. Eta egin gaitzazue geu buruzagi.»

Eta hola, gurdia utzirik basan, joan ginen etxeke guziak xaxiletraduen ondotik.

Iluntze batez, igaro omen ziren handik baserritar bi. Eta gurdia basan ikusiz, lotu omen ziren eleketan:  
-Nongoa duk belar-orga hori?

-Larraldia-koa.

-Eta non dituk ba Larraldiako gizonak?

-Xaxiletraduek eramanak dituzte predikatzeraz.

-Ez dakit zertaz ari diren, gizon handi horiek erdaraz ari baitira.

-Baina, ari direla bazekiat.

-Predikatzen? Etxeko gurdia basan eta, predikatzen? Hobe lukete, indarka, gurdia basatik atera.

-Ez omen dute hartarako nahikoa indar. Horregatik joan dira xaxiletraduen bila.

-Xaxiletraduen bila? Holakoetan, motel, trabarako besterik ez dituk xaxiletraduak. Laguntza behar izatekotan, ekarri idi-pare bat. Bestela, trabarako, hobeak dituk etxeakoak bakarrik.

Errekatik beste aldera, bada baserri eder bat. Amerikar batena. *Misterenea* esaten diote etxeari. Hango nagusia arlote xamarra omen da baina, indartsua eta aberatsa izugarri. Harek badu *tratorea* ere. Harek nahi balu, belar-gurdia hartu eta eramango liguke airean etxeraino. Baina... orain Alkatearen lagun handia izaki amerikar hori eta, gu laguntzen bagaitu harekin gero haserretuko ote den beldur. Hola izaten dira herriko kontuak...

Orain urte batzuk dela -azken guda nagusia bururatu ondoren- hurbildu ginen iluntze batez amerikar harengana. Xaxiletraduak ere, beti bezala, gurekin genituen. Sukaldean hartu gintuen etxeko nagusiak: txapela buruan, pipa ahoan, zangoak mahaian, eta besoak uztartuta:

-How do you do? Ze behar zenuten, jaunak?

-Belar gurdia dugu basan sartua. Zuk baduzu *tratore* azkarra. Harekin...

-Ze bidetik nahi duzue gurdia etxeraino eraman?

-Ezkerreko bidetik. Hori bai. Ezkerreko bidetik ez izatekotan, hobe dugu gurdia bertan utzi. Xaxiletraduak ere ezker aldekoak ditugu eta, ez genituzke bidean galdu behar.

-Nik zuen gurdia eramatekotan, erdiko bidetik eramango dut. Niri hola komeni. *Tratorearentzat* ere, bide pullitagoa dut hura.

-Ez jauna. Ezkerrekotik eramango dugu.

-Ez nik aterata.

-Belar-gurdia gurea da!

-Bai baina... *tratorea* ez!

Horretan gelditu ginen. *Mistereneako* nagusiarekin zaputz atera ginen. Sasiletraduak haserre. Baratzako atetik itzulita, ikustekoa zen nola oihu egiten

zioten indianoari: «Usted? Usted ni es demócrata ni es nada, hombre. Lo que usted busca es seguir mango-neando en el pueblo a través de este cazurro de alcalde. Y como él necesita de losatacones que usted tiene... Qué vergüenza! Cuando nosotros mandemos, ya verá qué pronto van a parar los dos al río! Usted y su tractor. Pobres vacas de *Misterenea*! Menudo baño les espera a ellas también!»

Kalera atera ginenean, esan nien xaxiletraduei:

-*Tratorea* galdu diagu. Idirik baduzue zuek?

-Pero señor! -denek batera niri- qué pesado se pone usted con su dichoso tractor y sus dichosos bueyes, hombre!

Eta beharbada egia izaki baina, zer nahi duzu. Nik beti hau bainuen buruan: gure belar-gurdia!

Urteak joan eta urteak etorri, herri hartan ez zen aldaketa handirik. Alkate bera beti alkate, Amerikarra herriko nagusi, *aguazilla* geroz-ta gizenago eta beste gehienak gosez. Erretore jaunak, igandeetan, alkatea goretsi behar izaten zuen. Eta besterik ez. Egun eta gauaz herria ixil. Ostatueta-edo zarata apur bat egi-ten bazen, *aguazilla* sartu eta makilaka lotzen zen. Zerbait jakin behar izatekotan, herriko pregoiak entzun behar izaten ziren. Beste berri-emailerik ez

zen. Eta alkatea sosik gabe gelditzen zelarik, *Mistere-neako* nagusiarengana joan eta harek zizkion sakelak betetzen. Zer esanik ez: gure belar-gurdia beti hantxe lokatzetan makurtua. Hego-haizeak sakabanatzen hasiak zituen gure belarrok. Eta makina bat kanpoko belar nahasi ekarriak zizkion gurdiari. Iluntzearekin, hilerriraino igo biak eta: «Hemengo ixiltasun eta bake ederra!», esaten zion alkateak amerikarrari. Eta honek «Oh yes!».

Egun batez, alkateak oihu hauxe zabalarazi zuen herrian: «Amadísimos adversarios y enemigos míos. Este pregón es para vosotros. Me lo dicta la gratitud. Pues dejando de lado al Americano y al Alguacil del pueblo, a quienes principalmente sigo debiendo la alcaldía, sois vosotros, mis queridísimos adversarios, los únicos verdaderos amigos que me quedan. No olvidaré nunca todo lo que os debo. Vuestras discusiones bizantinas, el sectarismo de que afortunadamente habéis dado siempre prueba, vuestra habilidad en luchar a cada momento por lo imposible contra lo más o menos posible y, sobre todo, el cuidado que habéis puesto en llegar siempre a la estación después de la salida de cada tren... Son circunstancias todas que, de modo admirable, vienen prolongando mi agonía. (Per-

dón, quería decir mi alcaldía.) El triunfo es de todos. Los de don Juan habéis obtenido que no venga don Diego. Los de don Diego habéis logrado que no venga don Juan. Y yo he conseguido que no venga don Juan ni don Diego. Ya veis, con un poco de buena voluntad, cómo se puede dar gusto a todo el mundo. Gracias. Vuestro Alcalde, Francisco del Pardo. Advertencia: Vuestra amenaza al Alguacil de arrancarle el bastón de la mano para aplicárselo en cierta otra parte y la promesa al Americano de tirarle el tractor al agua, me han venido siendo de particular utilidad. En cuanto les hablo de vosotros, se me agarran ambos a los calzones y ya no me sueltan.»

Pregoa entzun, elkarri begiratu eta itzuli zen, ixilik, herritar bakoitza bere etxera.

Zer egin!

Zer egin? Hurbil gaitezen gure belar-orgaraino. Eta hari lotu. Hari bakarrik. Eta bide ondotik igaroko direnek «ze behar duzue» galdetzekotan, hauxe bedi denentzat gure erantzun bakarra: «Gurdia etxeraino eraman!»

# AGIRRE LEHENDAKARIAREN GAUBEILA

Euskaldun jaun-andre batzuek har zezaketen ohererik handiena gertatu zaigu guri: Agirre zenaren gorputza beren etxean hartzea! Eskerrik asko, bihotzetik, haren alargun eta seme-alabei. Euzkadiko agintariei ere bai. Ez zaigu bizi artean ahaztuko Agirre Lehendakariak, hilik, gure etxean igarotako azken gaua.

Agirre eta biok adin berekoak gintuzuen. Eta auzoak ginen. Elkarren ondoan dagoz xutik, Bergaran, gure jatorrizko etxeak. Baita, Bergarako hilerrian, gure hilobiak ere. Joan den udako arratsalde batez, hemen Donibanen, dei egin zidan Jose Antoniok bere etxera eta esan: «Begira zak ondo argazki hau. Iñaki nire semeak ekarria du Bergaratik atzo. Ikusten dituk gure bi hilobiak elkarren ondoan. Ez dakit nork zaintzen dituen. Baina garbi eta txukun omen dituk beti ere. Eta noizean behin agertzen omen dira loretuak». Nire barne-ikutua nolabait gordetzeagatik barrez erantzun nion: «Jaungoiko maitea! A ze borrokak atera behar ditugun biok, hil eta gero ere, hola uzten

bagaituzte, betiko, elkarren ondoan!» Uda-arratsalde eder hartan, nork asmatu behar zituen gerokoak!

Oraindik galtza motzetan biok, marinel soinekoz dotore jantzita, Bergarako prozesinoetan ibiliak gara Jose Antonio ta biok elkarren ondotik eskuan kandela ikaragarri bana hartuta. Geroztik, hogeita hamar urte honetan, elkarrekin igaroak ditugu Euzkadiren egun alai eta gau beltzenak. Orain hutsunean nagoela iduri zait. Hutsunean eta bakargoan. Hargatik ez nuen gaur idatzi nahi. Eta behartua nator zuengana. Egiazko barne-mina ez baita mintzalari.

Agirre eta bion arteko adiskidetasuna ez da beti goxoa izan. Bai zera! Baina ederra bai, ekaitzaren antzera, bere tximisten ondotik entzutekoak baitziren haren trumoiak. Zaparradaren ondoko lur-busti usainak biltzen gintuen berehala elkarretara berriz. Eta, Jaungoiko maitea, geroko besarkada estu haiek zein ederrak ziren! Azkeneko urte hauetan, batez ere, beti eztabaidan ginen. Harek bide bat ikusten eta nik beste. Baina gure Herriaren minez bizi ginen biok. Eta gogoan dut, Biriatur, buruz buru izan genuen azken bazkari hartan, nola esaten zidan Gipuzkoako mendiei begira: «Behazak Telesforo: nire bideak eramaten bagaitu etxeraino, ez duk hik negarrik egingo. Eta

hireak eraman behar bagintu, nik ere ez. Beraz, edan dezagun biok elkarren osasunera!». Eta mahaitik jaiki ginela gero: «Gehien-gehiena bazkari honetan, bada-kik zer gustatu zaidan? Denbora guziz biok euskaraz egin izatea».

Agirre Lehendakariarentzat ez dut, nik ere, sekulan izkukurik izan. Jose Antonio zenarentzat ere ez. Biak joan zaizkit batean! Eta ez dakit ba: orain nire bidetik gauaz bakarrik nabilela, haren beharra sumatzen dut eta, joana baitzaigu, tarteka etortzen zait... holako beldur antzeko bat.

Harriak ere ikaratu ziren, Euzkadi osoan, Agirre zenaren heriotzaren berria zabaldu zelarik. Gure herrietako kaleak bete ziren jendez eta elizak ere bai. Bat-batean, Euskalerra guzia goibeldu zen zeharo.

Berria jakin orduko, hemen Donibanen, gure etxe-ko atea zabalik utzi behar izan genituen egunez eta gauaz. Mugatik barne, multzoka baitzeturren jendea nonahitik. «*Gu Gipuzkoatik gatoz...!*» «*Gu Nafarroatik...!*» «*Gu Arabatik!*» «*Gu Bizkaitik...!*» «*Noiz dator gorputza...?*» «*Gu oinez gatoz menditik...!*» «*Gu itsa-soz...!*» «*Gurekin zetozenak mugan geldiarazi dituzte!*» Batek, Agirreri eskaintzaz, Aralar mendiko lurra zekarren. Besteak Sukarrietako hilerrikoa. Honek

Gipuzkoako basaloreak. Harek Gernikako Arbolari kendutako hosto batzuk. Eta eskuak hutsik zekarzkitenek ere, bere eskaintza begietan ageri zuten. Ez zaizkit ahaztuko gizon zahar haren etxe-barneko oihuak: «Zer egin diogu guk Jaungoikoari holako zigorra bidaltzeko?» Eta, ez dakit nongo, amonaxo haren hitzak: «Goikoa ari da lanean eta, geu ixilik egon behar!»

Epaillaren 27an, igandearekin, heldu zen Donibañera gure Lehendakariaren gorputza. Arratsaldeko bostetan. Gure etxe aurreko enparantza, gizon eta emakumez betea zegoen beltz-beltza. Gorputza heldu zelarik, ixiltasuna nagusitu zen. Ixiltasun ikaragarri bat. Eta gorputzaren atzetik bi haur, gizon itxuretan: haren seme gazteak. Eta haien ondotik Leizaiola. Xuri bezain tente, ilun eta goibel. Bost anaiak zetozkion ondotik. Eta Euzkadiko agintari guziak. Sartu zen gorputza gure etxean. Geroztik Herria izaki etxekojaun. Eta hasi ziren hiletak. Olerkari bat otoitzean: Zaitegi apaiza. Eta horren ondotik beste apaiz bat kantuz: Etxaniz olerkaria. Kantuz? Otoitzean? Jainkoari, minduki, eresian?

*Noiz arte, Jauna, behar gaituzu  
makilapean itotzen?*

*Gure otoitzak ez al zaizkizu  
Zure aulkira igotzen?*

Baina ez.

*Itxaropen oihua zen hura ere:  
Izar berri bat agertu zaigu  
Euskalerriko zeruan:  
Ta haren argitan, amets eder bat  
Sortu zait bihotz-barruan.*

«Bildu gaitezen biok bakarrik nonbaiten», esan zidan Leizaolak. Eta eraman nuen goiko gela batera. «Orain Euzkadiko Lehendakari neu naiz», esan zidan ilunki. «Bihar, hilerrian, Agirre zenaren gorputz aurrean egingo dut Zin eta hartuko dut Agintza». «Jainkoak lagun degizula», erantzun nion. Eta jaitsi ginen biok berriz behera. Orduko hasia zen Herria gorputzaren aurretik igarotzen. Kutxako leihoska irekia zioten eta aurpegia agerian emana. «*Il est déjà dans son cercueil mais vous pouvez le voir*». Banaka-banaka, ixilik edo otoitzean, etorri, hurbildu, igaro eta bazihoakion Agirreri negarrez bere herria...

Nork esan, nork idatzi, nork agertu iluntze eta gau hartan gertatuak? Bi haitz-egurren gainean etzanda zegoen gorputza. Kutxaren gainean ikurrina. Ondoan, beste euskal ikurrin bat xutik, gazte baten eskuetan. Kutxaren oinetan, berriz, Euzkadiko sei eskualdeetatik ekarritako lurra.

Amek, beren haurtxoekin igarotzean, hurbiltzen zituzten hauek kutxa ondoraino eta esaten: «Hau zen gure Lehendakaria, haurrak. Eta hau da gure ikurrina. Eman muxu». Hango ixiltasunaren ixilean, gizon bat jarri zitzaigun kutxaren ondoan belauniko. Eta besoak gurutzean emanik, atera zuen oihu ikaragarri bat: «Gora Euzkadi!». Eta joan zen. Gogoan eta begietan dut, oraindik, gazte baten aurpegia. Ez dakit nongoa zen eta nondik etorria zen. Gau osoa pasa zuen, harek ere, kutxa ondoan otoitzean. Argi hastearekin esan zidan: «Ordu laurden batez, bederen, utzi zaidazue ikurrin hori eskuetan!»

Batzuk sar besteak irten, etxea beterik egon zen gau osoa. Baratza ere betetzen zen tarteka. Eta etxe aurreko plazatik ez zen jendea higitzen. Donibaneko euskaldun anitz ere gurekin batean zegoen. Eta noiz-nahi aditzen genien: «Orain, orain hasiak gara konpre-nitzen!»

Nik ez dut sekulan ikusi gau hartan bezala otoitz egiten. Iduri zuen Euskalerrriak nahi zuela bere Lehendakaria gau hartan bertan zeruratu. Nongoa ote zen, bere errosarioa eskuan, aulki txiki batean jarrita, gau osoa mugitzeke eta irribarrez igaro zuen amona xahar pullit hura? Eta apaiz gazte beltzaran harek belaunak lurrean izanagatik, non zuen bere gogoa? Gizon bat sartu zitzaigun eta esan: «Este era un buen hombre. Pónganle una misa». Eta bere izena ematean: «Un vasco de la C.N.T.».

Barkatu esatea baina esan beharra dut. Gau hura ez zen gau ilun eta goibela izan. Gaubeila izanagatik, bizi-gaua zen hura. Geure oinazearen gainetik itxaropena baitzebilen hegazka.

Gure Herria esnatu zaigu bat-batean. Eta bere indarra ikusiz alaitu da.

Atzo ere, bere hilobiaren inguruan, lau gazte zituen Lehendakariak otoitzean. Iduri zitzaidan, hilobi baretik erraiten ziela: «Zuen eskuetan utzia dut, gazteak, nire Herriaren etorkizuna».

# LANGOSTA BATEN INGURUAN

Ziburun, Bordagain-eko tontorrean, bada etxe eder bat. «Arizti» esaten diotena. Etxe hori, aspaldi, Abadi-tarrena zen. Antoine d'Abbadie euskalzale aipatuaren anai batena. Gero, Pariseko jostun handi batek erosi zuen. Eta horren ondotik, berriz, Pariseko andere handiki eta aberats batek. Udan, hauxe bizi da orain «Arizti»n. Eta bazkari dotoreak ematen ditu bertan. Hantxe jaten ditut, nik ere, urteko langosta bakar-rak...

Alde batetik itsaso eta bestetik mendi, harritzekokak dira etxe horrek ageri dituen ikusgaiak. Iduri du, etxea bera, Euskalerrriaren gain zankalatraba jarria. Baina nik behintzat ez dut zalantza handirik izaten. Etxe hartara joaten naizela, ez naute ni luzaroan ikusiko itsasoari begira. (Ez inori esan baina... ez dut itsaso maite). Handik ageri diren mendien atzetik dihoazkit begiak. Eta hantxe ibiltzen zaizkit ederrez betetarik, tontor batetik bestera nora jo ez dakitela.

«Arizti» etxe horren ondoan bada harrizko gurutze handi bat. Eta «Bordagaineko gurutze» horrek egiazko oroitzapena izaki guretzat. Toki hartantxe hila bai-

tzaigu, Lardizabal aldetik, gure aitona zenaren aita. Bat-batean. Bere zakurrarekin ehizan zebilela gizona. Nagusia lurrean ikustearekin, zeharo erotu omen zen zakurra. Eta zaunka ta zaunka etorri omen zen Zibururaino norbaiten bila. Etxekoak ohartu nonbait. Eta zakurrari jarraitu ziotela. Bordagaineko gurutze ondolan atxeman zuten, lurrean etzanik, Laurgain-eko nagusia.

Baina ehiztari eta beren zakurrei buruz, badira hau baino ixtorio politagoak ere. Ez dakit denak egiazkoak diren. («Ehiztariak hatsa gezur» baita erran zaharra.) Halere, entzungarriak dira batzuk. Eta hone-tan gabiltzan ezkerro, aipatuko dizuet batto. Egiaz polita.

Sarako inguruetan iluntze batez, Lerenburu nire osaba zaharra zenarekin ibilian nenbilela, pasa zitzai-gun ondotik iratze-orga bat karraxika. Itzain gaztea, aurretik, kantuz zetorren etxe aldera...

*Ikusten duzu goizean,  
eguna hasten denean...*

Gelditu ginen biok, xoratuta. Eta gurdia urrundu zelarik, esan nion nire osabari: «Errazu osaba. Hori

baino olerki ederragorik egin ote da euskaraz?» Goxoki begiratu zidan endore-midiku zaharrak, eta bota zidan kolpez (berak zuen berdingabeko dotoretasun harekin): «Olerki eder hori ba al dakizu non eta nola sortua den? Adi zazu ba ongi». Eta Sarako plazarat hurbiltzen ari ginelarik, gertaera polit hauxe aipatu zidan:

«Elizanburu zena, ehiztari amorratua zenuen. Bai-eta gure aita zena ere. Biak ibiltzen zitzaizkizun beti, noiz-nonahi, elkarrekin ehizan. Egun batez goizean goizik, Sarako beste lagun batzuekin, atera ziren biok erbitara. Eta aitzinetik hauta lekurat heldu zirelarik, zakurrak askatu eta jarri zen ehiztari bakoitza bere tokian. Elizanburu eta gure aita ez ziren elkarrengandik urrun. Bakotxa, ixil-ixilik, bere bide-gurutzeari so. Halako batez, urrun, hasi ziren zakurrak saingaka. Eta zaunka haiek erreka bidea hartu zutelarik, ehiztariak ari omen ziren bere baitan: 'To! Oraingoan Elizanbururi datorkio erbia!' Esan ta izan. Zakurrak amorrubizian karraxika zituela ondotik, hurbil-hurbiletik igaro omen zitzaion Elizanbururi erbia. Baina... tirorik ez!! Non zen ba Elizanburu? Zerbait gerta ote zitzaion beldur, hurbildu omen zitzaizkion lagun guziak lasterka. Eta... belarrean etzanda atxeman omen zuten gure

Elizanburu, paper puntta batean zerbait idazten ari zela. 'Non hintzen gizona? Erbia ez duk ikusi?' Eta Elizanburuk: 'Erbia? Bazen erbirik? Ez naiz ohartu ere'. Eta xutiturik, eman omen zien kantuz orduantxe sortua zuen olerkia...

*Ikusten duzu goizean  
eguna hasten denean...*

Olerki haren adituz xoraturik, abantxu barkatu ere egin omen zioten Elizanbururi, bere Sarako lagunek, erbi eder haren ihesia!».

Egia ote, ez ote? Nik, entzun bezalaxe ekarki. Beharbada, osaba ari zait Zerutik irriz keinuka: «Egia ote den? Egia itsusiak baino, nahiago nitian nik munduan gezur pullitak!»

Baina non nabil ni? Zer ari naiz ni kontu-kontari, Ziburutik Sararat zerutik barna? Gatozen berriz zintzoki Bordagain tontorrerat. Handik ateratuak baikara. Eta ipuinetan ari garen ezkerre, aipa dezagun niri, aste honetan, «Arizti» jauregian gertatua.

Komitatuak ginen bazkaritarat. Nor atxeman behar genuen jakiteke. Eta gure ondotik laster, sartu zen gizon zahar dotore bat ere, monokulua zintzilik

zekarrela. «Nor dugu hori?», galdetu nuen. Eta belarri ondorat erantzuna: «X-ko enbaxadorea, Madrilen». Gure anaia ere gurekin baitzen, eta haren ez-ixiltzeak ezagutzen baititut aspalditik, egin nion neure buruari: «To! Gaur badiagu hemen xaltxa».

Izan ere, bi xaltxa atera zizkiguten mahaian jarri orduko. Bata langostaren laguntzaile hura. Ze xaltxa! Eta bestea berriz enbaxadoreak berak sortua. «Donostiatik nator -esan zigun- eta Castiella-k komitatua nau gaur berarekin afaltzeko». Mahaiaren beste aldetik nire anaiaren ahotsa: «Hori! Euskal apaizen arazoa aipatuko diozu beraz, enbaxadore jauna». Akabo! Gerta beharra gertatua zen. Gero gerokoak.

Enbaxadore gizajoak ez *omen* zekien -halaxe esan zigun- euskal apaizen berri deusik. Nola aipatuko zion fitxik ministroari beraz? Etxekoandreak esan zion nola aspaldiko kontua zen eta, munduko izparringi guziek nola aipatua zuten euskal apaizen idazkia. Alferrik, harek ez omen zuen ezer ez jakin eta ez irakurri. (Monokulua zertarako zuen ba?) Nire anaiak ez baitzion barkatzen ordea, azkenean aitortu zigun: «Horra. Nire erregea ez da Francoren lagun. Nire Gobernamendua ere ez. Baina ni bai. Ni zeharo nauzue Francoren aldekoa». Jainko maitea! -pentsatu

nuen nik-, a ze ordezkariak dituzten munduko xoxolista batzuek ere!! Gu katolikooi bezala gertatzen zaie nonbait xoxolista gaixoei ere: horra ze enbaxadorea Madrilen! Hortaz, frankokeriaz, Antoniutti gure Nuntzio jaunaren antzekoa! Badakit zer erantzungo didaten xoxolista jatorrek: «Zer nahi duzu! Asmoak asmo izaki, eta gizonak gizon».

Badakit. Horixe bera esan behar izaten dugu katolikook maiz. Egun batez, asmoek atxemanen dituzte beharbada zerbitzari egokiagoak. Artean... zatozte xoxolista gaixook, eta kotsola dezagun elkar!

Baina zergatik eta zertako negar? Utzi negarra negartientzat. Hobe dugu irria. Hargatik, barre pixkat egiteagatik, esan nion enbaxadoreari: «Enbaxadore jauna! Utzagun politika alde batera. Bestela haserretuko baikara. Eta ez merezi. Begira zein ederki garen hemen: bista eder, mahai aberats, giro atsegina. Eta...

-Errazu, etxekoandre, jarleku hauek zureak al dira?

-Jarleku hauek nireak diren? Nik uste! Zer ba?

-Denek ezin baitute gauza bera esan.

-Zer ari zara?

-Horra. Nik badut zuei egiteko, enbaxadore jauna, otoitz bat. Behar dizuet mesede bat eskatu.

-Politikaz?

-Ez, ez. Gizabidez.

-Esan.

-Uda da eta, Donostian zagozte orain guziok. Horra ba, Francoren etxera zoaztelarik, harek esango dizue: «Jarri, enbaxadore jaunak». Ordurako da nire otoitza. Arren eta arren! Hango jarlekuak hartu itzazuela goxoki. Exeri zaitetze emeki, jarlekuok urratzeke. Otoi!

-Zer ba?

Eta ixilaren ixilean esan nion:

-Nireak baitira.

-Zureak?

-Bai jauna. Nireak. Orain zuen ipurdien azpian ibiltzen diren jarlekuok, enbaxadore jauna, gure Bergarako etxean ikusiak ditut, sortu nintzenetik, gure saloi nagusiko ixilaren ixilean. Jarleku horietan ikusia jarri-rik, jai handietan, gure aita zena.

-Nola? Francoren jarlekuok zuenak izaki?

-Zergatik harritzen zara hola, enbaxadore jauna? Francok bere zangoen azpian daukan Herria ere, gauza bera duzu:

»Gurea!